

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

97/2022 Foru Gobernu Kontseiluaren Erabakia, otsailaren 22koa, Adikzioen Prebentzio Komunitariorako 2021-2026 Foru Plana onesten duena

Adikzioen Prebentzio Komunitariorako 2021-2026 Foru Planak Arabako Aldundiak adikzioen prebentzio arloan dauzkan politika publikoak garatzeko programa esparrua eskaintzen du.

Foru plan horren abiapuntua da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (aurrerantzean GOFE) adikzioen prebentzioan duela 30 urte baino gehiago hasi zuen lana (1989tik hona), eta lan hori egiten da kontuan izanda zein diren Arabako Lurralde Historikoko gizarte eta demografia ezau-garriak, kontsumoen oraingo errealitatea eta arrisku eta babes faktoreak. Gainera, garrantzi bere-zia ematen zaie hainbat eremutan egiten diren esku hartzei; hain zuzen ere, familian, eskolan eta gazteentzako jolas eta aisialdi guneetan egiten direnei.

Adikzioak hainbat eragile eta arrazoi ditu oinarrian; hortaz, ez zaio lerratzen talde edo gizarte, ekonomia eta kultura maila jakin bati, drogen kontsumoak edo substantzia gabeko adikzioak gizarte guztiari eragiten baitio. Arrisku horiei aurre egiteko, foru planaren asmo da erkidegoa gaitzea eta indartzea, eragile sozialek komunitatea mugiaraziz bere baliabide propioak bila ditzan, aldaketa sozialen protagonistak izan daitezen.

Eredu hori GOFEn prebentzio komunitarioko foru zerbitzuen bidez ezartzen da Arabako landa eremuan, eta zerbitzu haiek erreferentziatzko elementuak dira Arabako Lurralde Histori-koan Adikzioen prebentziorako jarduerak garatzeko, Gasteiz, Laudion eta Amurrión izan ezik. 2021-2026 aldian, zerbitzu horiek, gainera, COVID-19aren pandemia gure bizitzetara iritsi ondo-ren banaka zein taldeka aurre egiteko mekanismoei erantzunak emateko erronka hartu zuten beren gain.

Finean, komunitateak daukan ahalmena garatu nahi da, guztion ahaleginarekin plan honek egingo dituen esku hartzeen eraginkortasuna biderkatu ahal izateko. Izan ere, prebentzioan, "batzea biderkatzea da".

Adikzioen arloan prebentzio komunitarioko foru politika arautzen duen arau esparrua hauexek osatzen dute: Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legea, zeinak bere printzipio orokorren artean ezartzen baititu erantzukizun publikoa eta elkarren arteko koordinazioa eta lankidetzak; Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralaren apirilaren 7ko 1/2016 Legea, zeinak adierazten baitu foru aldundien eskumena dela, bakoitzak bere lurralde historikoan adikzioei buruzko foru plana taxutu, garatu eta gauzatzea, eta Familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legea, zeinak xedatzen baitu foru aldundien eskumena dela hartu beharreko neurriak hartzea, familiei laguntzeko, gizarteratzearen eremuan.

Lege horiekin bat etorritik, kontuan hartu dira drogaren aurka borrokatzeko Europar Batasuna-ren 2021-2025 Estrategia eta Adikzioen Estrategia Nazionala 2017-2024. Gainera, erreferentziatzat hartu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019, Gizarte-ratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021, Haur eta Nerabeen II. Plan Estrategikoa Nazionala 2013-2016, Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022, Euska-diko IV. Gazte Plana 2020, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategia 2018-2020 eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana, eta maila espezifikoago batean, Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen VII. Plana 2017-2021. Arabako Foru Aldundiaren eremuan, honako hauek dira erreferentziak: 2019-2023 Legegintzaldiko Plan Estrategikoa, zehazki, 2. ardatza (Giza garapena eta gizarte kohesioa), eta Arabako Lurralde Historikoko 2016ko gizarte zerbitzuen mapa.

Adikzioen Prebentzio Komunitariorako 2021-2026 Foru Plana lantzean, 2017-2020 planaren ebaluazioa ere egin da. ebaluazio horretatik abiatuz, errealitateari hobeto egokitzen zaizkion esku hartzeak egiten jarraitzea proposatu da, inguruan lortu nahi izan den eragina lortu ez duten esku hartzeak kanpoan utzi dira, eta komunitatearentzat berritzaileak diren beste batzuk erantsi dira.

Planak hiru esku-hartze mota bereizten ditu (unibertsala, selektiboa eta adierazia), komunitatea ekintza profesionalaren funtsezko elementu gisa kokatzen dutenak eta beste eremu batzuk inplikatzeko dituztenak, hala nola familia eta eskola, eta eraldaketa prozesuak ahalbidetzen dituzten esku hartze ildoak ezartzen dira, horien guztien arteko zeharkako lan osagarri eta interakzionalaren bitartez.

Horregatik, Arabako Gizarte Politiken Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hona hau,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Adikzioen Prebentzio Komunitariorako 2021–2026 Foru Plana.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 22a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ

ARABAKO LANDA EREMUAN
KOMUNITATEAN PREBENITZEKO
ZERBITZUAK

Adikzioak Prebenitzeko IV. Foru Plana

2021-2026



► ARABAKO FORU ALDUNDIA



Gizarte Ongizaterako
Foru Erakundea
Instituto Foral
De Bienestar Social

► DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

AURKIBIDEA

Agurra

Aurkezpena

1 Arau esparrua

2 Adikzioak komunitatean prebenitzeko esparru kontzeptuala

2.1. Adikzioak prebenitzeko jorraketa komunitarioa

A - Atxikimenduak eta emozioen kudeaketak kontsumoen eta mendekotasunezko jokabideen aurrean duten garrantzia.

B - Adikzioen arrisku eta babes faktoreen lanketa

3 Arabako landa eremuan adikzioak komunitatean prebenitzeko foru zerbitzuak

3.1. Kokapena

3.2. Eginkizunak

3.3. Helburu orokorrak

3.4 Esku hartzeko metodologia

4 Egindako ekintzen ebaluazioa (Adikzioak Prebenitzeko 2017-2020ko Foru Plana)

4.1. Familia, eskola eta komunitate eremuetan 2017-2020 aldian egindako ekintzen laburpena

4.2. Ondorioak

5 Gaur egungo kontsumo eta joeretarako hurbilketa

5.1. Ikasle nerabeen eta gazteen kontsumo joerak

5.2. COVID-19aren pandemiak kontsumoetan izandako inpaktua eta aintzat hartu nahiz ebaluatu behar diren beste ondorio batzuk

6 Foru mailan adikzioen prebentzioan esku hartzeko proposamenak eta jarduteko ildo estrategikoak (2021-2026)

7 Ebaluazioa

Erreferentzia bibliografikoak

Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiken Sailaren foru diputatuaren agurra



*Adikzioen fenomeno hain da konplexua eta dimentsio anitzekoa, ezen **gizarte osoaren ahalegina eta konpromisoa** behar baitira; zehazki, erakunde publikoek beren gain hartu behar dute **komunitatean nahiz komunitateko kide guztiengan ongizatea eta bizi nahiz harreman molde osasungarriak sustatuko dituzten politika integral eta parte-hartzaileak** garatzeko erantzukizuna.*

*Adikzioen prebentzio komunitarioaren eremuan 30 urte baino gehiagoko eskarmentua erein ondoren, **Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiken Sailak**, sail horri atxikitako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea organismo autonomoaren bidez, **Adikzioak Prebenitzeko 2021-2026ko IV. Foru Plana** abiarazi du.*

*Hain zuzen ere, IV. Planak osatzen du **prebentziorako esku-hartze komunitarioaren diziplinarteko eredua**, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen mendeko prebentzio komunitarioarako hiru foru zerbitzuek ukitzen dituzten herritar eta komunitateei zuzenduta dago. Esku hartzeko eredu bat da, pertsonen eta komunitatearen indarguneak aitortzen dituen, eta herritarrak ahalduzko aukerak eskaintzen ditu, herritarrak prebentzio, aldaketa eta eraldaketa eragile bihurtzeko.*

*Prebentziorako hiru foru zerbitzuek, zeinak plan honen esku-hartze eragilearen azken erreferenteak baitira, Arabako lurralde historikoan azken 30 urteetako esku-hartzean pilatutako eskarmentua daukate; halere, 2021-2026 aldian, beren gain hartu dute **COVID-19aren pandemia gure bizitzan oldarka sartu ondoren** garatu diren banakako nahiz taldeko mekanismoei erantzunak emateko erronka.*

*Pandemia gizartean, biztanleen osasun mentalean eta biztanleek adikzioen aurrean duten jokaeran izaten ari den eraginaz jakitun, Arabako Foru Aldundiak **adikzioen prebentzio komunitarioarako politikak garatzeko dituen konpromisoa eta erantzukizuna berresten du** "Adikzioak Prebenitzeko 2021-2026ko IV. Foru Planak": Arabako lurralde historikoko herritar guztiek, bizi diren udalerria edozein*

*izanik ere, mendekotasunezko jokaerei aurre egiteko prebentzio politikak **baldintza beretan** jasotzeko eskubidea daukate.*

*Adikzioen arazoari eman nahi zaion erantzun komunitario honek banakako nahiz taldeko babes faktoreak sustatu eta indartzea, arabarrak gaitu eta ahalduntzea eta **gure ingurunean bizi proiektu orekatuak eraikitzen laguntzea** espero dut.*

***Emilio Sola Ballojera**
Gizarte Politiken Saileko foru diputatua*

AURKEZPENA

Adikzioen mundua oso errealtate konplexua da, kontsumoak gertatzea ekartzen duten faktoreak alderdi eta kausa anitzeko ezaugarrien mende daudelako. Bada, alderdi eta kausa anitz horiek prebentzioaren eta heziketaren arloan jorratu behar dira, modu integralean jorratu ere, esku-hartzearen eremu nagusi guztietan.

Erreferentzia eragileko esparru horretan, adikzioen **prebentzio komunitarioa komunitatean eta komunitaterako egiten den eraldaketa prozesutzat** jotzen da, eta halaxe antolatzen, komunitateko agente guzti-guztiek hartzen baitute parte eraldaketa horretan (familiek, gizarte eta hezkuntza eremuko profesionalek, eremu soziokultural eta sanitarioko profesionalek, elkarteen mugimenduko kideek, hirugarren sektoreko ordezkariak...). Bada, honako bi elementu hauek giltzarriak dira eraldaketari begira: substantzien kontsumoaren ondorioak murriztea eta bestelako adikzio mota batzuetara (substantziak egon zein ez egon) loturiko jokaera eta portaerak ager ez daitezen prebenitzea.

Bultzatu nahi den esku-hartzea globala eta integrala da, eta, bertan, herritarrak eta haien komunitatea erreferentziazko erdigune aktiboa bihurtzen dira, eraldatzeko duten ahalmenaren begirada proaktiboen xede. Zentzu horretan, **pertsonarengan zentratutako arreta integralean oinarritzen den Empowerment eredua** aipatu behar dugu. Eredu hori esku-hartze komunitarioan aplikatzen da, eta, horren bidez, gizarte eragileek komunitatea mobilizatzen dute, bere baliabideak bila ditzan eta gizarte aldaketen protagonista izan dadin.

Arabako lurralde historikoan “Adikzioak Prebenitzeko 2021-2026ko IV. Foru Planarekin”, hala, komunitateak berak duen ahalmena garatu nahi da, garatzen diren esku-hartzeen eraginkortasuna handitzen lagundu dezan, guzti-guztion ahalegin eta inplikazioarekin batera; izan ere...
“Prebentzioan, BAT EGITEA UGARITZEA DA”.



IV. Planean, jarraitutasuna emango zaie Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak adikzioak prebenitzeko ondoz ondoko foru planen bidez garatu dituen esku-hartzeen esparru ildoei.

Plan berria 2017-2020ko Planean jasotako ekintzen azterketa eta ebaluaziotik abiatu da, eta esku-hartzeak eguneratu ditu, Arabako landa zonaren ezaugarri soziodemografikoak eta kontsumoen errealitate berriak (bai substantzieko adikzioak, bai jokabidezko adikzioak) kontuan hartuta. Era berean, COVID-19aren pandemiaren bilakaeraren ondoren agertzen ari diren aukera eta erronka berriak jasotzen dira; horiek behatzen jarraitu beharko da, eta kontuan izan beharko dira, baliabideak eta esku-hartzeak agertoki aldakor berrietara egokitzeko.

Adikzioak Prebenitzeko IV. Foru Plana Arabako landa zonan ezarriko da, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen mendeko Prebentzio Komunitariorako hiru Foru Zerbitzuen bidez, eta, Arabako lurralde historikoan (Gasteiz, Laudio eta Amurrio kenduta) adikzioak prebenitzeko jarduketak garatzeko orduan, hiru foru zerbitzu horiek erreferentziazko elementuak izango dira.

1

ARAU ESPARRUA

Administrazioen erantzukizun publikoak **herritarren eskubide eta betebeharren** oso-osoko erabilera sustatu behar du, beren eskumena eta jarduketa oinarritzen dituen arau esparruaren barruan.

Bada, Adikzioen Prebentzio Komunitariorako Foru Plan honi dagokionean, arauzko erreferentziak asko eragiten du, besteak beste honako alderdi giltzarri hauen inguruko ekintzak garatzeko orduan: **prebentzioa, parte-hartzea, arrisku faktoreen murrizketa vs. babes faktoreen indartzea.**

Azken batean, ahalik eta **babes maila handiena** bermatzea da xedea, mendekotasunezko jokabideekin zerikusia daukaten **zaugarritasun handiagoko eta gizarte bazterketako egoerak prebenitze aldera.**

(Europako, estatuko, autonomia erkidegoko eta foru mailako) arau esparruak **Adikzioen 2021-2026ko IV. Foru Planean** jasotzen diren filosofia eta ekintzak babesten ditu.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (aurrerantzean, GOFE), adikzioen prebentzioaren arloan, duela 30 urte baino gehiago ekin zion ibilbideari (1989an), Eusko Legebiltzarrak **15/1988 Legea** onetsi ondoren, lege horretan finkatu baitziren Euskal Autonomia Erkidegoan **drogazaletasunaren inguruko prebentzio, laguntza eta gizarteratze politikak** burutzeko oinarriak.

Adikzioen fenomenoaren kausetan eta garapen prozesuetan bat egiten duten elementuak elkarreaginean aritzen direnez eta droga kontsumoan nahiz mendekotasuna sortzeko gaitasuna duten beste jokabide batzuetan (adibidez, jokabidezko adikzioetan) askotariko eremu eta arloek eragiten dutenez, hainbat araudi eguneratu eta onetsi dira, **Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea** iritsi arte.

Lege horretan aitortzen denez, arrisku eta babes faktoreek asko eragiten dute mendekotasunezko jokabideen garapenean, eta, beraz, legearen artikuluetan, ezinbesteko eginkizuna esleitzen zaie prebentziozko jarduketari.

Hala, besteren artean, herritar guztiei zuzentzen dizkie adikzioak prebenitzeko jarduketak, beren bizi etapa edozein izanik ere; zehazki, arrisku faktoreen eraginpean dauden pertsona eta taldeei, adingabe eta gazteei eta zaurgarritasun handiagoko egoeran dauden herritar eta kolektiboei. Halaber, prebentziozko jarduketaren lehentasunezko eremuen artean biltzen ditu familia, komunitatea, hezkuntza eta lana. Hala, eremuok elkarrekin eta gizarte eragileekin (batez ere, komunitatekoekin) koordinatu beharko dute, aplikatuko diren neurriak eraginkorrak izan daitezen.

Legeak, 67. artikuluan, besteak beste honako hauek ezartzen ditu foru aldundien eskumen espezifiko gisa:

- Adikzioen foru plana eta, oro har, arlo honetako programak eta jarduketak egin, garatu eta betearaztea, Legean jasotzen diren manuekin eta "Euskadiko Adikzioen Planean" jasotzen diren ildoekin bat etorritik.

- Dagokion lurralde historikoko lurralde eremuan adikzioen inguruan aholku emateko eta koordinatzeko organoak sortzea eta organoon funtzionamendu araubidea ezartzea.

Lege horrek foru aldundiei ematen dizkien eskumenen barruan, GOFek foru plan hau sustatu du, eta, **Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea** aintzat hartuta, Planaren barruan jaso du administrazio publikoa den heinean gizarte zerbitzuen garapenean duen erantzukizuna, zeinak bazterketa sorrazten duten egiturazko kausen analisitik abiatu behar baitu. Halaber, prebentzioaren arloan ere erantzukizuna dauka, baina baita herritarrak beren ingurune pertsonal, familiar eta sozialean integratzekoa ere, edota haurrak eta familiak babestekoa, **Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen** arabera. Azken horretan, gizabanakoak bizitza sozial eta komunitarioan gizarteratu daitezen prestatzeko orduan duten garrantzia aitortzen zaie familiei, jokatzeko gidalerroen, tradizioen, ohituren, erabileren eta sinesmenen igorleak baitira.

Zeharka, foru plan honetan jasotzen diren esku-hartzeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioan oinarritzen dira, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin** bat etorritz, eremu pribatu nahiz publikoan askeak izango diren pertsonak sustatzen baititu, gaitasun pertsonalak garatu ditzaten eta sexuaren araberako rol tradizionalak ezarritako mugarik gabe har ditzaten erabakiak: emakumeen eta gizonen jokabideak, nahiak eta premiak neurri berean hartzen dira aintzat, eta neurri berean baloratzen eta indartzen dira.

Hori guztia, erantzukizun publikoan, lankidetzaren publiko-sozialean eta gobernantza parte-hartzailean oinarritutako gizarte politiken kudeaketa eredu batetik abiatuta, hirugarren sektorea sustatzeko estrategiak hedatuz, **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen** babespean.

Era berean, foru plan honek nazioarteko nahiz nazio mailako erreferentziak jasotzen ditu; oso bereziki, Osasunaren Mundu

Erakundearenak eta Europar Batasunarenak (hala nola, **Drogaren kontra borrokatzeko Europar Batasunaren Estrategia**), eta aipamen esplizitua egiten die prebentzioari (ingurunekoa, unibertakia, selektiboa eta adierakia), detekzio eta esku-hartze goiztiarrei eta adingabeak eta gazteak osasuntsu eta seguru garatzeko laguntzari. Bestalde, **Adikzioei buruzko 2017-2024 Nazio Estrategiak** helburu estrategikoetan zehazten duenez, prebentziozko esku-hartzeen xedea izango da droga kontsumoaren eta mendekotasuna sor dezaketen bestelako jokabideen arrisku faktoreak murriztu eta babes faktoreak areagotzea. Horretaz gain, drogek eta adikzioek eragiten dituzten arrisku eta kalteen gainean kontzientzia soziala bultzatzea, kontsumoarekin eta mendekotasuna sortzen duten jokabide jakin batzuekin (jokoa, IKTak) loturiko arriskuaren pertzepzioa areagotzea eta herritarrek asmo horretan parte hartzea oso garrantzitsua dela adierazten du.

Tokiko mailan, **Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen VII. Planak (2017-2021)** gorpuzten du hori guztia, helburu orokortzat baitu mendekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoa, jokabidezko adikzioak eta, ondorioz, mendekotasun horiek pertsonen eta beren familien, komunitateen eta gizarte osoaren osasunaren gainean dauzkaten ondorioak ahal bezainbeste murriztea, ekitatearen ikuspegitik abiatuta. VII. Planak bi mailatan bereizten ditu adikzioen inguruko esku-hartzeak: norbanakoaren mailan (hor, pertsona bihurtzen da subjektu nagusia, haren autonomia eta ahalduntzea sustatuz) eta komunitatearen mailan (hor, pertsonarengandik hurbilen dauden inguruneen balioa nabarmentzen da, hala nola familiarena, eskolarena/hezkuntzarena, aisialdiarena eta kirolarena, eta guzti-guztiak inplikatzeko eta parte hartzea bilatzen da, asoziazionismoa, boluntariotza eta parte-hartzea bultzatuz).

Dena dela, GOFek Euskal Autonomia Erkidegoko plan sektorialetan jasotzen diren ildoak eta ardatz estrategikoak ezartzeari begira hartu dituen konpromisoak ere garrantzitsuak dira, Arabako lurralde historikoan prebentziorako, babeserako eta komunitatearen nahiz gizartearen garapenerako politikak garatzea baita helburua eta politika horiek zuzenean eragiten baitute Adikzioak Prebenitzeko IV. Foru Plan honetan (besteak beste, honako plan sektorial hauek aipa ditzakegu: **Euskal Autonomia**

Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (2016-2019); Gizarteratzeko IV. Euskal Plana (2017-2021); Haur eta Nerabeen II. Plan Estrategiko Nazionala (2013-2016) – II. PENIA (gaur egun, III. PENIA egiten ari dira, 2018-2021 aldirako), Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakundearteko IV. Plana (2018-2022); Euskadiko IV. Gazte Plana (2020), Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategia (2018-2020) eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana).

2

**ADIKZIOAK KOMUNITATEAN
PREBENITZEKO ESPARRU
KONTZEPTUALA**

Adikzioen fenomeno **alderdi eta kausa anitzekoa** da, eta mendekotasuna sortzen duten kontsumoak gertatzen diren eremu guztiak aintzat hartuko dituen eredu **biopsikosozial** batetik jorratu behar da; hots, **pertsonari** berari, mendekotasuna sortzen duen **substantzia edo jokabideari** eta kontsumoaren **inguruneari** erreparatu behar zaie.

Horretarako, **“babes faktoreak”** eta **“arrisku faktoreak”** ezarri dira kontuan hartu behar diren oinarritzko eta egiturazko elementu gisa. Bi indarren artean harreman orekatuak sortu ala ez sortu, mendekotasunezko jokabideak izateko aukerek gora edo behera egiten dute.

Komunitatean bertan zentratutako lana garrantzitsua izateak agerian jartzen du sarean lan egin behar dela. Sareko lan horretan, baina, esku-hartzeak **pertsonarengan zentratutako arreta integralean** oinarritu behar du, pertsonak izaki sozial eta interdependentetzat jotzen direlako.

Gizakien eboluzioaren historian, beti egon dira askotariko substantziekin adikzioak; besteak beste, norberaren plazera bilatzeko edo bizitzari zentzua aurkitzeko irrikak bultzatuta. Alabaina, “adikzioaren” kontzeptuak berak, substantziak hartzearen edo jokabide zehatz batzuk edukitzearen ondoriozko problematika gisara, 200 urte inguruko ibilbide historikoa dauka (Levine, 1978). Ordutik, hainbat eredu saiatu dira mendekotasunen fenomenoaz azaldu eta lantzen, jokabide horiek jorratu ahal izate aldera.

Komunitate zientifikoan, “adikzioaren” kontzeptuaren gaineko postulatu hertsiki biologizisten aurrean, halaxe definitu baitzuen National Institute of Drug Abuse (NIDA) erakundeak, egile batzuen auzitan jarri zuten eredu horren joera erredukzionista eta mugatua, alderdi psikosozialek mendekotasunezko jokabideetan eragiten duten faktore eta elementu erabakigarriak direla azpimarratzen baitute.

Hala, besteren artean Hall, Carter eta Forlini (2015), Kalant (2010), Carter eta Hall (2011) edo Becoña (2016) egileek adierazi zuten faktore psikosozialak azalpen erabat biologikoen maila berean jarri behar direla gutxienez, mendekotasunen fenomenoak modu integralean planteatu eta jorratu behar dela ulertarazteko.

Zentzu horretan, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME), osasuna “gaixotasunik eza” delako kontzeptu zaharkitua gaindituz, honela definitzen du osasuna: “*ongizate fisiko, mental eta soziala edukitzea da osasuna, eta ez gaitzik edo gaixotasunik ez edukitzea bakarrik*” (OME, 1998). Eredu horrek postulatu duenez, **alderdi biologikoen (faktore kimikobiologikoen), psikologikoen (pentsamendua, emozioak eta jokabideak) eta sozialek eginkizun esanguratsua daukate giza jardueran.**

Eredu horren arabera, “**testuingurua**” (“ingurunea” edo “giroa” ere esaten zaio) da mendekotasunezko jokabideetan eragiten duten faktore nagusietako bat, “**substantziekin**” eta “**gizabanakoekin**” batera (Kramer eta Cameron, 1975; Romani, 2011).



Bada, esku-hartze sozial “komunitarioak” esparru horretantxe justifikatzen du gizarte lanaren eremutik esku hartzeko proiektu bat egotea bera, **adikzioak prebenitzeko jorraketa komunitarioan** zentzua eta garrantzia eskuratzen dituen jarduketa profesionalari bide ematen baitio. Gutiérrez (2007) irakaslearen hitzetan:

“Gizarte lanaren adar espezializatu bat da, zeinak, bidelaguntza prozesu sozial baten bidez, mendekotasunezko jokabideak agertzea eragin, jokabide horiei iraunarazten lagundu eta/edo jokabideok uzten lagundu dezaketen gizarte faktoreak aztertzea eta jorratzea baitu helburu, testuinguru sozialaren arrisku faktoreak murrizteko eta subjektuaren baliabide interaktibo eta psikosozialak (babes faktoreak) areagotzeko”.

2.1. ADIKZIOAK PREBENITZEKO JORRAKETA KOMUNITARIOA

Mendekotasunezko jokabideen idiosinkrasiak **kausa eta ertz asko** dituenek, kontzeptualizazio integraletatik abiatuta jorratu behar dugu gaia, mendekotasun prozesu potentzialetan eragin dezaketen edo eragin ahal izan duten elementu guztietan zentratu ahal izan gaitezen.

Hala, komunitatean prebentzioaren arloan esku hartzeko eredu berrikusi bat bultzatu nahi dugu, eta, eredu horren bidez, bide eman nahi diegu komunitate bat osatzen duten pertsonen ongizate kolektiboa bultzatu eta

bilatzeko oinarritzko asmoa duten **dinamika proaktiboei**, Osasunaren Mundu Erakundeak aldarrikatzen duen **osasun integrala** sustatuz eta **ahalduntzea** estimulatuz.

Horri begira, herritarrek beren bizitzak gidatzeko duten gaitasuna sustatu behar dugu, eta erabaki adimentsuak (erabaki informatu, autonomo eta arduratsuak) hartzera bultzatu behar ditugu, mundu honetan mendekotasuna sor dezaketen egoera ugari baitaude (drogak, sare sozialak, jokoa, erosketa konpultsiboak...) eta, nahi ez ditugun ondorioak saihestu edo murriztu nahi baditugu, egoera horiek behar bezala kudeatzen ikasi behar baitugu.

Prebentzio ekintzen plangintza egiteko, lehenik eta behin, jarduketa eremu bakoitzaren errealtate zehatza aztertzen da, eta komunitatea hartzen da prebentzioaren arloan esku hartzeko programak gauzatu ditzakeen talde hartzailerik egokientzat.

Halaber, planteamendu horrek **pertsonaren ikuspegitik heltzen dio adikzioen prebentzioari, pertsona bizitza komunitarioaren sistema global batean integratu nahi duen izaki bateratu gisa ulertuta, norbanakoen eta gizartearen ongizatea bilatzen duten sektoreen arteko benetako koordinazioaren bidez. Horretarako, modu arrazionalizatu eta planifikatuan erabiltzen ditu giza baliabideak eta baliabide komunitario, material eta ekonomikoak, proposatutako helburuak lortu ahal izateko. Pertsonarengan zentratutako arreta-eredu integral bat da, zeinak “*pertsonen bizi kalitatearen eta ongizatearen eremu guztiak hobetzea lortzeko behar diren baldintzak*” sustatzen baititu, “*pertsona horien duintasuna, eskubideak, interesak eta lehentasunak erabat errespetatuz eta haien benetako partaidetza bultzatuz*”. (Rodríguez Rodríguez, P., 2013).**



Pertsonak, beren prozesu ebolutiboan, ekintzen hartzaile huts ez ezik, gaitasunak eta trebetasunak antolatu eta garatuko dituzten subjektutzat ere jo behar dira; beraz, horri begirako prozesuak abiatu behar dira. **Elkarlaneko parte-hartzeari** bide ematea da kontua, tartean diren agente guztiak eta komunitatea bera inplika daitezen, premiei **ekintza eraldatzaile batekin** erantzute aldera.

Hartara, aplikatuko diren metodologiak **proaktibitatean** oinarritu behar dute, esku-hartze erreaktiboetan oinarritu ordez, problematikari **aurrea hartzeko helburuz**, ondorio edo zaurgarritasun potentzialak larriagotu edo astundu ez daitezen.

Helburu horiek lortzeko, bi elementu giltzarri hauetatik abiatu behar da:

A. Atxikimenduak eta emozioen kudeaketak kontsumoen eta mendekotasunezko jokabideen aurrean duten garrantzia.

Hainbat txosten eta azterlanek adierazten dutenez, garrantzitsua da substantzien kontsumoari eta kontsumoetan dauden lehentasunei bakarrik ez begiratzea.

“El consumo de sustancias y su relación con la dependencia emocional, el apego y la regulación emocional en adolescentes” (J. Momeñe, A. Estévez et al, Deustuko Unibertsitatea, 2020) txostenean jasotzen diren emaitzek **substantzien kontsumoaren eta mendekotasun emozionalaren artean harremana dagoela erakusten dute**. Alderdi emozional hori **erabakigarria izan daiteke mendekotasunezko jokaeretan, arriskuetatik babesteko edo, kontrara, arriskuak areagotzeko faktore gisa**.

Azterlan horretan, era berean, honako ondorio hauek nabarmentzen dira:

- Zenbat eta substantzia gehiago hartu, **mendekotasun emozionala** orduan eta handiagoa da. Era berean, pertsona batek mendekotasun ezaugarriak baditu, osasun jokabide kaltegarriak izateko arriskuak gora egiten du (Benotsch et al., 2017). Sexuei dagokienez, azterlanak aurretiko zenbait azterlanetan (Estévez et al., 2017; Urbiola eta Estévez, 2015) esandakoa berresten du: gizonak emakumeak baino mendekoagoak dira emozionalki.
- Datuek **atxikimendu moldeei** dagokienez erakusten dutenez, substantziak hartzen dituztenek atxikimendu molde defizitario eta segurtasunik gabeak izaten dituzte, haurtzaroan eskuratutakoak (Meredith et al. 2020; Serra et al., 2019).
- Datuek **erregulazio emozionalari** buruz esaten dutenaren arabera, substantzien kontsumoak gora egin ahala, emozioak erregulatzeko zailtasunek ere gora egiten dute. Hortik ondorioztatzen denez, gazteen eta nerabeen artean, emozioak erregulatzeko moduak lotura izan dezake arrisku jokabideak edukitzearekin (Estévez et al., 2004).
- Sexuen arteko aldeei dagokienez, datuek erakutsi dute **gizonek emakumeek baino substantzia kopuru handiagoa** hartzen dutela, eta maizago. Aurretiko azterlan batzuek ere gizonek kontsumo handiagoa egiten dutela baieztatzen dute (Teixidó-Compañó et al., 2018). Ondorioen arabera, emaitza horiek azaltzeko modu bat da honako hau: emakumeek gizonek baino presio sozial handiagoa jasotzen dute substantzien kontsumoaren inguruan, eta presio horrek kalte psikologiko handiagoa eragiten die; ondorioz, gizartearen erantzunaren beldur direnez, kontsumoa ezkuta dezakete (Sánchez, 2013).

- Dirudienez, substantzien kontsumo egonkorra saihestuko duen **prebentzioa** eta kontsumoa areagotzea edo finkatzea prebenitu dezaketen **esku-hartze goiztiarrak** elementu giltzarriak dira. Emaizten arabera, adinak gora egiten duen neurrian, kontsumoaren maiztasunak, substantzien kopuruak, mendekotasun emozionalak eta atxikimendu moldeek ere gora egiten dute, modu paraleloan egin ere (Moreno et al., 2014), eta gauza bera gertatzen da drogen kontsumoarekin (Díaz et al., 2018).

Azken batean, ondorio gisara, **substantzien kontsumoa eta mendekotasun emozionala argi eta garbi lotuta daude**, eta baliteke lotura hori oso adin goiztiarretan sortzea.

Halaber, emakumeekin esku hartzeko programa espezifikoa garatu behar direla ikusi dugu; izan ere, adikzioa ikusarazi eta aitortzeko zailtasun handiagoa daukate gaur egun, bai presio sozialarengatik, bai programa gehienek batez ere gizonen adikzioari heltzen diotelako.

Mendekotasunezko jokabideen prebentzioan, substantziez gain, kudeaketa emozionaleko prozesuak eta atxikimendu moldeak ere aintzat hartu behar dira, prebentziozko esku-hartzeak txikitatik eta generoko ikuspegiarekin txertatuz.

B. Adikzioen arrisku eta babes faktoreen lanketa

Adikzioen fenomeno alderdi eta kausa anitzekoa delako eta gizarte osoari eta maila sozial, kultural eta ekonomiko guztiei eragiten dielako premisatik

abiatzen garenez, beharrezkoa da adikzioen arrisku faktoreak eta babes faktoreak argi identifikatzea. Funtsezko zeregina da hori, baina ez politika publikoek jarraitu behar dituzten xede eragileak zehazteko bakarrik, baita gure esku-hartzearen xede biztanleria zehazteko ere.

Arrisku faktoreak

Arrisku faktorea “pertsonaren barruko eta/edo kanpoko ezaugarri bat da, eta hura agertzeak gertakari jakin bat gertatzeko aukera edo joera areagotzen du” (Luengo eta beste batzuk, 1999). Ikerketa biomedikoak hartu zuen arrisku faktorearen ikuspegia (Stamler, 1978; Simons et al., 1988), eta osasun arazo bat agertzearekin zerikusia izan zezaketen jokabideen edo inguruneen faktore biopsikosozialak (Kumpfer, 1987) identifikatzeko erabili zen.

Ezaugarri pertsonal, sozial eta familiarrek, besteren artean, mendekotasunezko jokabide bat garatuko dela aurreikustea ahalbidetzen dute, eta jokabide mota horrekiko zaurgarri bihurtzen dute subjektua.

Adierazi beharra dago ez direla zertan arrisku faktore asko edo gutxi bildu, mendekotasunezko jokabideak ager daitezen. Hala ere, mendekotasunezko jokabideak agertzeko probabilitate indizea handia edo txikia den zehaztu ahal izateko, aintzat hartu behar da faktore horiek elkarerraginean nola jarduten duten eta zer-nolako eragina duten batzuek besteengan.

Hortaz, adikzioen prebentzioan, **substantzia bera edo mendekotasunezko jokabidea** aintzat hartu behar bada ere, ezin daitezke bazter utzi substantziek edo jokabideek **pertsonekin eta haien bizikidetza testuinguruekin** dauzkaten harremanak.

Hiru elementu horien (gizabanakoa – substantzia – testuingurua) arteko interrelazioak zehaztuko du, neurri handi edo txikiagoan, pertsonen **zaurgarritasun** potentziala.



Babes faktoreak

Bestetik, modu osagarrian, **babes elementu eta faktoreak** landu behar dira (arrisku faktoreen aurrean), pertsonen gaitasunak eta ahalmenak garatu ditzaten, beren bizi proiektuak zentzu positiboan kudeatu ahal izateari begira, mendekotasunezko jokabideetatik urrun eta arrisku handiagoa ekar dezaketen kontsumo jokabideak murriztuz. Babes faktoreek drogak ezegoki erabiltzeko edo substantziarik gabeko adikzioak garatzeko aukerak murriztu, galarazi edo arindu ditzakete.

Babes faktoreak egoteak arrisku faktoreen eragina modulatzeko du, eta arrisku faktoreek adingabeen eta nerabeen jokabideen gainean duten eragina arintzen. Zaurgarritasuna arrisku eta babes faktoreen arteko elkarreaginaren emaitza da, eta substantzien kontsumo goiztiarraren edo gehiegizko kontsumoaren edo mendekotasunezko jokabideen probabilitatea kalkulatzeko neurririk egokiena dela esan daiteke.

Azaldutako guztiarekin, **arrisku eta babes faktore nagusiak**, "*Hacia un modelo explicativo del consumo de drogas en jóvenes de la CAPV*" (IDD, Laespada, Iraurgi eta Aróstegi, 2004) azterlanean esaten den moduan, hiru hauen inguruan multzokatu daitezke:

1 Norbanakoen faktoreak

Gizabanako bakoitzaren barne ezaugarriak dira; izateko, sentitzeko eta jokatzeko modua. Adinak, nortasunak, eskura dituen gizarte baliabideek, jarrerak, balioek, autoestimuak eta abarrek subjektu bakarra eratzen dute.

Aldaketa pertsonalak dauden faseetan (hala nola, nerabezaroan), subjektuak aldaketa horiek onartzeko duen moduak ekarriko du independentzia eta autonomia maila handiagoa edo txikiagoa izatea. Ezaugarri pertsonal edo baliabide jakin batzuek, maila handiagoan edo txikiagoan dauzkagun, arrisku faktore (mendekotasunezko jokabideak hasi eta garatzeko aukera handitzen dute) edo babes faktore (subjektuak jokabide horietatik urruntzen dituzte) gisa jardungo dute.



Ez dago adikzioen mendeko “profil tiporik”, baina ikerketa zientifikoek diote badaudela probabilitatea areagotzen duten ezaugarri komun jakin batzuk; hala nola, hauek:

Adina: Drogekin, zorizko jokoekin eta abarrekin zenbat eta lehenago hasi, arazoak sortzeko aukera orduan eta handiagoa da.

Bizi moldea: Drogak, sare sozialak eta abar ohikoak bihurtzen direnean eta egunerokotasunean horiekin ohiko harremana sortzen denean.

Aisialdia edo, hobeto esanda, nagitasuna, denbora librearen drogekin, sare sozialekin edo zorizko jokoekin harremanean baino bizitzen ez denean.

2. Harremanen faktoreak

Pertsonarengandik hurbil dauden eta, bere garapenean eragiteaz gain, baldintzatu ere egiten duten instantziak dira.

Hiru nabarmentzen dira gehienbat: familia, eskola eta berdinen edo lagunen taldea.



- **Familia**

Familia ingurunea da pertsona baten lehen testuinguru soziala, eta jokabideak, trebetasunak eta balioak sortzen dituen eremu pribilegiatua da. Adingabeen nortasuna eratzeko orduan edota segurtasun sentimendua eskuratzeko orduan, ezinbestekoa da familia giro osasungarria edukitzea. Babes afektiboan oinarritzen da; hots, pertsona bat onartua eta maitatua sentitzeko mailan. Hortaz, segurtasun eta babes giroa egotea oso-oso garrantzitsua da nortasun integratua eraiki dadin.

Familia eremuan nortasuna behar bezala garatzeko oinarritzko elementuak zenbait faktoreren arabera izango dira:

- **Gurasoen eta seme-alaben arteko harreman afektiboak.** Familia harremanen pertzepzio negatiboa aldagai etengabea da kontsumitzaile ugarirengan, eta substantzien erabilera arazoan adierazlea da, etsaitzat jotzen den familia giro batetik ihes egiteko modua (Pons eta Berjano, 1999).
- **Familiaren barruko jarduera hezitzaileak.** Oro har, Baumrind-ek (1978) adierazitako ereduak erantzuten diete: **estilo autoritarioa** zigorrean eta arauak bortxaz ezartzean oinarritzen da; **estilo permisiboan**, mugak lausoak dira, eta axolagabekeriatzat eta laxokeriatzat hartzen dira; **estilo demokratiko edo autoritadedunean**, kontrol irmoa dago (arau argiak ezarritik), baina adingabeek erabakiak hartzeko orduan eta autonomia eskuratzeko orduan paper garrantzitsua edukitzea bultzatzen da.
- **Gurasoen eragina, jokabideen eredu gisa.** Eredu hau Banduraren (1984) ikaskuntza sozialaren teorian oinarritzen da. Horren arabera, subjektuarengandik hurbilen dauden jokabideak zuzenean behatu eta modelatzea da jokabide hori eskuratzeko funtsezko prozesua. Gurasoak jokabidearen ereduak dira.

1. Eskola

Ikastetxeak, instituzio gisa, "niaren" eta autoestimua zentzua aurkitu eta sendotzeko aukerak ematen ditu sozializazioaren bidez, baita eskola komunitatean modu aktiboan integratzeko eta bizikidetzaren maila ezberdinetan harreman sozialak edukitzeko ere.

Eskolaren bitartez, gizarte ereduak eta balioak transmititzen dira, zeinek ikasleei taldean bizitzen eta geroago gizartean integratzen eta haren arauak, legeak eta balioak errespetatzen lagunduko baitiete. Mugitzen den gizartearen barruan kide heldu eta arduratsu bihurtzen laguntzen die.

Eskolak jakin-mina edo bizipen berrien premia asebate ahal izateko, lan pertsonaleko nahiz aisialdiko denbora planifikatzeko eta berdinekin harremanetan egoteko aukerak eman ditzakeen esparru onuragarria eskaintzen du, ikuspegi eraikitzaile batetik eskaini ere.


Horretarako, eskolak familiarekin partekatu behar ditu adingabeen garapen pertsonalari eta ikaskuntzari lagunduko dieten oinarritzko esperientzia atseginak emateko rola eta erantzukizuna.

2. Berdinen taldea

Berdinen taldeak nortasuna zehaztu eta sendotzeko eremu bat ematen die haur eta nerabeei, sentimenduak, arazoak eta emozioak partekatzen baitituzte bertan; gainera, premia sozialak estaltzen ditu (hala nola, estimu, segurtasun eta maitasun premiak). Taldeak nonbaitekoa izateko sentsazioa, ulermena, aitortza eta abar ematen ditu; beraz, eragin handiko gunea da. Taldeak bere arauak ezartzen ditu, eta, hortaz, pertsona bakoitzak arau horiek onartu behar ditu, balora eta onar dezaten.

Nerabezaroan, subjektuak beren nortasuna aurkitzen saiatzen dira, eta, pixkaka, familiak erreferentziazko elementua izateari uzten dio. Taldeak norberaren bizitza eta nork bere burua antolatzeko eredu bat, gako batzuk eta erreferentziazko puntu batzuk ematen dizkio subjektuari, jokabideak moldatuz, ohiturak hartuz, gustuen arabera definituz... Horrek guztiak heltze prozesuari laguntzen dio.

Nortasuna eraikitzeko bizi prozesu horretan, beste elementu batzuk ere sartzen dira; besteak beste, erosahalmena, aisialdirako denboren kudeaketa, asteburuak, gaueko aisialdia... Ez da harritzekoa gaueko aisialdia preziatuenetako bat izatea gazteentzat, helduen mundutik bereizitako eremu bat eskaintzen baitie, non beraiek ezar baititzaizkete ordutegiak, familiaren kontroletik eta helduen mundutik kanpo. Eremu horretan, alkohola eta bestelako substantziak funtsezko elementuak dira (Laespada, 2000).



3. Gizartearen faktoreak

Aldagai sozialen barruan, substantziaren eskaintzak eta eskuragarritasunak eta komunikabideen eraginak lehentasunezko tokia daukate kontsumoko jokabidea zehazteko orduan.

Giza jokabide oro sortzen da testuinguru sozial jakin batean, eta testuinguru horretan dauka zentzua, baita substantzien kontsumoari dagokionez ere.

Batetik, substantziak lortzea erraza bada (horixe da, adibidez, tabakoaren, alkoholaren eta, are, kalamuaren kasua) eta,

bestetik, jokabide horiek ospakizunetan eta ekitaldi sozialetan sartuta edo errotuta badaude, substantziek gizartean eta kulturaren duten presentzia areagotzen da. Horren ondorioz, kontsumoen permisibitatearen maila eta onarpen normalizatua handitzen dira, eta kontsumoen zifrak handiagoak izaten dira. Drogen kontsumoa gizartean orokortuta dago, eta, bizikidetza harremanetan, onartuta –maila bateraino–, integratuta eta normalizatuta dago. Erakutsi denez, drogetara edo zorizko joko eta apustuetara erraz iristeko aukera egotea arrisku handiko faktorea da, kontsumo hori edo mendekotasunezko jarduera hasi eta mantentzeko dagokionez.

Gizarte ereduak eta balioak aldatu egin dira, eta, gaur, gehiegi kontsumitzea, egunean egotea, gauzak berehala lortzea edota gizartearen presioa saihestea gailentzen dira; elementu horiek gizartean transmititzen dira, eta bide ematen diete substantzien kontsumoari eta, besteak beste, joko patologikoarekiko mendekotasunari.

Hortaz, substantzien gaineko egiazko informazioa eman behar da, ebidentzia zientifikoan oinarritutako azterlan ugari (Bachman, Johnston, O'Malley y Humphrey (1988)) erakutsi baitute substantzia jakin batzuen kontsumoak gora edo behera egiten duela gazteen artean, substantzia bakoitzaren arriskuaren gaineko pertzepzio subjektiboaren arabera. Hori dela-eta, adikzioei eta beren ondorioei buruz benetako informazioa emateak, eraginik ez izatetik urrun, kontsumo mailetan esku hartzea ahalbidetzen du. Substantzia jakin baten arriskuaren gaineko pertzepzioa zenbat eta handiagoa izan, kontsumoa orduan eta txikiagoa da, eta alderantziz.



Azkenik, laburpen orokor gisara, adierazi egin behar dugu azterlan guztiek ondorioztatzen dutela **zenbat eta arrisku faktore gehiago egon substantziak kontsumitzeko edo mendekotasunezko jokabideak edukitzeko probabilitatea orduan eta handiagoa dela** eta, horrenbestez, **zaugarritasun egoerak esponentzialki areagotzen direla**.

Aitzitik, **babes faktoreak eskuratzea** ahalbidetuko duen esku-hartze prebentibo eta hezitzaile batekin, **mendekotasunezko jokabideak edo zaugarritasun handiagoko egoerak prebenitzeko aukera igo egingo da**.

3

ARABAKO LANDA EREMUAN
ADIKZIOAK KOMUNITATEAN
PREBENITZEKO FORU
ZERBITZUAK

Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen prebentzio komunitariorako programak **1989an** hasi zuen ibilbidea. Ordutik, Arabako landa eremuko eskaerei arreta ematen dieten **hiru zerbitzu** tekniko edukitzearen alde egin du. Zerbitzu horien bidez, Foru Administrazioa tokiko errealitateekin **konektatzen** da, modu deszentralizatuan konektatu ere. Hala, zerbitzuok **erreferentziatzko** kanalak dira, baita **komunikaziorako** eta **ekintza zuzen eragile nahiz erabakitailerako** kanalak ere, eta, aldi berean, **oreka eta kohesio elementuak** dira, Arabako landa inguruneko herritarrekin modu **koordinatu, erabakigarri eta hurbilean esku hartzea ahalbidetzen baitute.**

Foru Administrazioak sustatzen dituen ekintza zuzeneko prebentzio jardueren motorra da lan profesional hori, eta eremuetako beste irudi profesional batzuekin edota unean-unean behar diren baliabide espezializatuekin koordinatzea errazten du.


Adikzioen Prebentzio Komunitariorako Foru Zerbitzu bakoitzean, Gizarte Laneko titulua duen profesional bat dago (prebentzio komunitarioko teknikaria - "PKT"), eta, funtsean, gizarte lan komunitarioan espezializatutako lana egiten du, Arabako lurralde historikoan prebentzio ekintza koordinatuak gauzatzeko.

3.1. KOKAPENA

Lan profesionala Prebentzio Komunitariorako Zerbitzu Teknikoen bidez garatzen da. Hiru dira, eta Arabako lurralde historikoko kuadrilletan banatuta daude.

Zerbitzu horiek **51.250 biztanleri** ematen diete arreta; hau da, lurralde historikoko **guztizko biztanleriaren % 15,48ri**.

Gainerakoa hiriburuaren (% 75,94) eta Laudio eta Amurrio udalerrien (% 8,59) artean banatzen da; toki horietan, adikzioak prebenitzeko bertako zerbitzuek ematen dute arreta.



Arabaren barruan **lurralde desoreka** dagoenez, Gasteiz hiriburuan eta Aiaraldeko industria ardatzean ematen diren zerbitzuak eta ekintzak deszentralizatu behar dira (Gasteizen eta Aiaraldean bizi dira arabar gehienak). Era berean, prebentziorako baliabide eta zerbitzu gutxiago dauzkaten eremu geografiko txiki eta sakabanatueta bizi diren herritarrek zerbitzuak baldintza beretan jaso ahal izateko lidergo forala behar da.

Zentzu horretan, hiru zerbitzuak honela banatzen dira kuadrilletan:

Zerbitzu Teknikoa	KUADRILLA	Kuadrilla GUZTIRA	GUZTIRA, zerbitzuko
PKT zerbitzua: Araba mendebaldea	AÑANA	9.039	24.701
	AIARA (Laudio eta Amurrio kenduta)	5.910	
	GORBEIALDEA	9.352	
PKT zerbitzua: Araba ekialdea	ARABAKO LAUTADA	12.449	15.348
	KANPEZU - ARABAKO MENDIALDEA	2.899	
PKT zerbitzua: Araba hegoaldea	GUARDIA - ARABAKO ERRIOXA	11.201	11.201
GUZTIRA artatutako herritarrak			51.250

(Arabako Gizarte Zerbitzuen Behatokiaren datuak - Dataraba.eus / 2019)

3.2. EGINKIZUNAK

Hastapenetatik garatu diren eginkizunak ez dira gehiegi aldatu, baina urte hauetan izandako bilakaerari egokitzen joan zaizkio. Besteak beste, honako hauek dira:

1. Arabako landa eremuan adikzioen fenomenoaren ezagutza egokia lortzeko behar diren ekintzak garatzea.

2. Herritarrei mendekotasunezko kontsumoei eta kontsumo horiekin zerikusia daukaten alderdiei buruzko informazioa ematea eta kontsumoei lotutako arriskuak kudeatzen nahiz kalteak murrizten laguntzea.
3. Tokiko erakundeei eta erakunde laguntzaileei aholku ematea adikzioen eremuan jarduerak planeatzerakoan eta Adikzioen Tokiko Plana egiterakoan, esku-hartze integral eta koordinatua lortze aldera.
4. Pertsonen, familien eta kolektiboen orientazioa, informazioa, prestakuntza eta aholkua ematea, prebentziorako agente gisa dituzten ahalmenak hobetu ditzaten, beren inguruan kontsumo arazotsuak eta mendekotasunezko beste jokabide batzuk prebenitzeko helburuz.
5. Kolektiboei, taldeei eta elkarteei alternatibak sortzen eta prebentziorako esku-hartze komunitarioko programak garatzen laguntzea.
6. Hala behar duten kasuak beste zerbitzu espezializatu batzuetara deribatzea.
7. Eremuko gizarte zerbitzuei, osasun zerbitzuei eta hezkuntza zerbitzuei laguntza, aholkua eta orientazioa ematea eta haiekin lankidetzan aritzea.
8. Beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan aritzea, ahaleginak bateratzeko eta baliabideak optimizatzeko behar diren erakundearteko koordinazio mekanismoetan parte hartuz, eta irabazi asmorik gabeko ekimen pribatuak sustatzea. Zehazki, Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen programak betearazten laguntzea.
9. Adikzioak prebenitzeko eta arriskuak eta kalteak murrizteko jarduketa programa espezifikoaren garapenean sartzen diren jarduketa guztiak.

3.3. HELBURU OROKORRAK

- Biztanleak mendekotasunezko kontsumoen aurrean (drogak nahiz substantziarik gabeko adikzioak) babesteko faktoreak sortu,

mantendu eta indartzea, gaitasun pertsonal positiboak eskuratzen lagunduz (autokontzeptua, oldarkortasunaren kontrola, emozioen kudeaketa, gatazkak konpontzeko trebetasunak eta balioen sustapena).

- Kontsumoak eta/edo mendekotasunezko jokabideak saihestea edo, hala badagokio, horietan hasteko adina atzeratzea, erabakiak hartzeko trebetasun eta gaitasunak, harreman sozialetarako abileziak, pentsamendu kritikoa, egoeren maneia (hala nola, talde presioarena), jarrera positiboak eta aisialdirako, denbora librerako nahiz ongizaterako aukera osasungarrien bilaketa indartuz.
- .
- Drogekin harreman etengabea hasten ari diren pertsonengan edo zorizko jokoekin edota teknologiek mendekotasunezko jokabideak edukitzen hasten ari diren pertsonengan arrisku faktoreen eragina murriztea.
- Komunitatearen partaidetza sustatzea, adikzioen prebentzio ekintzaren subjektu gisa, eta nahi ez diren jokabide, jarrera eta balioen alternatibak sortzen laguntzea.
- Komunikazio eta gizarte partaidetzako sare baten sorrera sustatzea biztanleriaren sektore guztietan, baita beste irudi tekniko batzuen ere (taldeak, elkarteak, erakundeak eta abar), jarrera, ohitura eta jokabide osasungarriak lortzeko.

3.4. ESKU HARTZEKO METODOLOGIA

Irudi profesional horiek, zeinek entitate propio eta espezifikoak baitute prebentzioaren arloan, 30 urtetik gorako eskarmentua daukate zerbitzuotan, Arabako landa eremuan esku hartzen duten Esku-hartze Soziokomunitarioko Talde Teknikoen barruan egiten dutelako lan, adikzioak prebenitzeko ekintza espezifikoak eginez, beste zerbitzu batzuekin koordinatuz eta komunitatea

- Komunitateko esku-hartzearen lehen erronka **komunitatea eraikitzea** da; horretarako, lehenago, lurralde bakoitzak komunitatea zer den aztertu eta definitzeko lan bat behar da. Parte-hartze kolektiboaren bitartez proiektu komuna eraiki behar da.
- Lan komunitarioa gizarte, ekonomia, hezkuntza... arlokoa da. Komunitatera zabalik egon behar dute erakundeek. Arazo iturri ez ezik, **irtenbideen iturri eta jatorri ere bada komunitatea**. Arazoak kolektiboak badira, haien irtenbideak ere kolektiboak izan beharko du. Beraz, beharrezkoa da parte-hartze komunitariorako organoak ezartzea.
- Esku-hartze komunitariorako behar diren tresnak, batez ere, **adierazteko, parte hartzeko eta desberdintasuna eta banakotasuna errespetatzeko eszenak** sortzean datza. Deialdiak egiteko moduak, parte hartzeko dinamikak, gatazka eta berradiskidetze guneak, plazera... dira parte-hartzearen gakoak.
- Lan komunitarioan, **gatazka ekintzaren beste motor bat** da, eta halaxe integratu behar da. Gatazka bizitza sozialari datxekio. Gatazkek ekidin nahi izatea krisian sartzea da, eta, krisi horrek, konpontzen ez bada, liskarrera darama.

- **“Ez-eskatzea”** eskatzeko modu esplizitu gisa lantzen da. Talde dinamikan, egoteak beste balio du ez egoteak.
- Komunitateko jakintzak hainbat jakintza arlo dauzka: Jakintza teknikoak, jakintza kulturalak, lurralde batean tokiko mikrokulturaren eramaile diren biztanleen jakintzak eta jakintza enpirikoak bereiz ditzakegu.
- Esku-hartze soziokomunitario batean, **benetako beharrezana hautemandako beharrezan bihurtu** behar da, pertsonaren ahalmenarekin kontaktatuz eta ez haren disfuntzioarekin, juzguak eta aurreiritziak saihestuz.
- Honako hauek dira lan horretarako ezinbesteko baldintzak: **malgutasuna, irisgarritasuna, gardentasuna, moldagarritasuna eta zeharkakotasuna.**

Komunitateko esku-hartze mota honi **“garapen komunitario”** esaten zaio, Ezequiel Ander-Egg egileak definitu bezala, eta oinarritzko ezaugarri hauek dauzka:

- **Gizarte praktika profesional** bat da, eta gizartearen gaineko ezagutza zientifikoa eta gizarte zientzia jakin batzuetan bermatzen da.
- Oinarritzko helburuak **pertsona bakoitzaren** sustapena du xede, eta, horretarako, giza baliabideak eta baliabide instituzionalak mobilizatzen ditu, biztanleek programa komunitarioak aztertu, programatu eta egiteko orduan modu aktibo eta demokratikoan parte hartzea bultzatuz.
- Ez da komunitatearen gaineko ekintza bat, **komunitateko ekintza** bat baizik, non herritarrek erabakiak hartzen dituzten eta erabakien ondorioak beren gain hartzen dituzten.

- **Oinarritik lan egiteko metodologia** bat da: maila psikosozialean jarduten du, gizabanakoen, taldeen eta komunitateen ahalmenak garatzeko asmoa duen heziketa prozesu baten bidez, haien baldintzak hobetze aldera.
- Lau elementu nagusi hauen integrazioak eta fusioak ezaugarritzen dute: **errealitatearen ikerketa eta diagnostikoa, jardueren programazioa, arrazionalki gidatutako gizarte ekintza eta egindakoaren ebaluazioa.**
- Garapen komunitarioaren prozesu orotan, berez, giza **baliabideak sustatu eta mobilizatzen** dira, **kontzientzia eragiten duen heziketa prozesu** baten bidez.
- Garapen komunitarioko programetan, **herriarren parte-hartzea ezinbesteko elementua** da. Besteak beste, adostasunak, askatasun publikoek, hurbiltasun sozialak, prestakuntzak eta informazioak ahalbidetzen dute parte-hartze hori.

4

**ADIKZIOAK KOMUNITATEAN
PREBENITZEKO FORU PLANAREN
EBALUAZIOA
(2017 – 2020)**

Ebaluazio hitzak iritzi bat emateko, balorazio bat egiteko eta, iritzi hori emateko erabili diren irizpide jakin batzuen arabera, "zerbait" (objektua, egoera, prozesua) neurtzeko balio duten jardueren multzoa izendatzen du. Ildo horretatik, ebaluazio sistematikoko moduak erabili behar dira, prozedura zientifiko bat erabiliz baliozkotasuna eta fidagarritasuna bermatzen baitituzte.

Ebaluazio ereduen tipologiaren barruan, "inpaktuari" buruzkoaren bidez, zerbaitek denbora luzean izan duen intzidentzia beha daiteke, denbora horretan egin diren aldaketei dagokienez. Horrela, argi eta garbi ikus daiteke zerbaitek denbora luze batean izan duen ibilbide ebolutiboa (positiboa nahiz negatiboa), eta etorkizunera begirako esparru eragilea erregistratutako joeren arabera egokitzea ahalbidetzen du horrek.

2017-2020ko Planean jasotzen diren ekintzak ebaluatzeko, garatutako jarduketan eta prozesu eragilean inpaktua aztertu dugu, horien eraginkortasuna eta efizientzia edota hasiera batean planteatutako helburuen betetze maila neurtuz.

Jasotako datuetan, 2017an, 2018an, 2019an eta 2020an egindako esku-hartzeak jasotzen dira. COVID-19aren pandemiaren ondorioz alarma egoera deklaratu zenez, 2020ko esku-hartzeetan desberdintasuna ikus daiteke; izan ere, ekitaldi horretarako hasiera batean aurreikusi ziren ekintza asko eta asko bertan behera geratu, atzeratu eta/edo egokitu behar izan ziren.

Ebaluazioa, bada, Arabako landa inguruneke familia, eskola eta komunitate eremuetan esku hartzeko ezarritako hiru ekintza motei jarraikiz egin da: **prebentzio unibertsaleko ekintzak, prebentzio selektiboko ekintzak eta prebentzio adieraziko ekintzak.**

4.1. PREBENTZIO UNIBERTSALA FAMILIA EREMUAN

Egindako ekintzen laburpena 2017-2020

Ekintzak	URTEA				GUZTIRA
	2017	2018	2019	2020	
Familien eskolak	13 herri 118 saio 483 bertaratu	11 herri 84 saio 229 bertaratu	9 herri 76 saio 710 bertaratu	4 herri 23 saio 280 bertaratu	37 herri 301 saio 1.702 bertaratu
Familien prestakuntza jardunaldiak	14 herri 33 saio 333 bertaratu	14 herri 31 saio 395 bertaratu	20 herri 51 saio 594 bertaratu	13 herri 176 saio 768 bertaratu	61 herri 291 saio 2.090 bertaratu
Familien prestakuntzarako lurralde topaketak	2 deialdi: -- 450 perts. (Gasteiz) 132 perts. (Dulantzi)	2 deialdi: -- 450 perts. (Gasteiz) 96 perts. (Guardia)	3 deialdi: -- 450 perts. (Gasteiz) 83 perts. (Langraiz)	Deialdi 1: 450 lagun Gasteiz.	8 deialdi: -- 1.800 pertsona Gasteiz +

			74 perts. (Bastida)		385 pertsona gainerako Araba
Gurasoentzako irradi guneak	18 programa emanda	33 programa emanda	43 programa emanda	28 programa emanda	122 programa emanda (EITB-Radio Rioja Alavesa)
Familientzako informazio aldizkariak	---	---	7.500 ale banatuta	-----	7.500 ale banatuta
Familien ahalduntze programa “Preben-Familia – Araba”	4 ekintza: 94 lagun bertaratuta “	14 ekintza 491 lagun bertaratuta.	17 ekintza: 322 lagun bertaratuta.	15 ekintza: 288 lagun	50 prestakuntza jardunaldi -- 1.195 bertaratu
“Cuéntame un Cuento” irratsaioa (COVID)				24 programa emanda	24 programa emanda (EITB-Radio Rioja Alavesa)
Irratsaio berezia (COVID-19)				26 programa emanda	26 programa emanda (EITB-Radio Rioja Alavesa)

Gurasoak trebatzeko aurrez aurreko programa eta ekintzei dagokienez (eskolak, topaketak eta landa eremuko lurralde topaketa), 2017-2020 aldian honako parte-hartze hau egon zen:

- **98 udalerri** (+ 4 saio Gasteizen)
- **499 prestakuntza saio** (+ 4 saio Gasteizen)
- **5.372 lagun / bertaratu** (+ 1.800 bertaratu Gasteizko 4 saioetan)

Familientzako aurrez aurreko prestakuntza programetan (eskolak, jardunaldiak eta topaketak) erregistratutako bertaratuen **bilakaera** honako hau izan da aztergai dugun aldian:

Esku-hartzeetako erregistroen eta asistentzia erregistroen bilakaera

2017-2020 aldia URTEA	A: Gurasoen ESKOLAK		B: Gurasoen JARDUNALDIK		GUZTIRA (A+B)	
	saioak	bertaratuak	saioak	bertaratuak	saioak	bertaratuak
2017	118	483	33	333	151	816
2018	84	229	31	395	115	624
2019	76	710	51	594	127	1.304
2020	23	280	176	768	199	1.048
GUZTIRA	301	1.702	291	2.090	592	3.792

Aldia **oso ona izan dela** esan dezakegu; izan ere:

- Familientzako prestakuntza programetara bertaratu direnen kopuruak nabarmen egin du gora.
- Lineako prestakuntza programa berriak sartu dira familientzat, eta parte-hartzea handitzea ekarri du horrek. Alderdi hori bereziki esanguratsua da, Arabaren barruan sakabanaketa geografiko handia baitago.
- Familien asebetetze maila oso altua izan da, horrelako prestakuntza programak seme-alaben heziketan oso baliagarriak direla uste baitute.

Halaber, gutxika-gutxika foru lurralde osora zabaldu den **“PrebenFamilia Araba”** programan garatutako ekintzetan oso erregistro eta emaitza onak izan direla adierazi behar dugu. Proiektuak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen **“Jarduera onen programa” aitortza jaso zuen** 2018an. Foru Erakundearen beraren Prebentzio Komunitariorako Foru Zerbitzuetako profesionalek garatu eta ezarri dute programa. Sari banaketarako, proiektuaren edukia, ezarpen prozesua, helburuak eta egindako ekintza batzuk laburbiltzen zituen bideo bat egin zuten. Erantsitako QR kodearen

bidez deskarga daiteke bideoa, edo web esteka honetan ikusi:

https://youtu.be/8lewFjtVe_Y



Azkenik, 2020an, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoera dela-eta, aurrez aurreko formatuak bazter utzi, eta formatu berrietara egokitu behar izan ziren programak; hortaz, irradi bidezko prestakuntza saioek (podcast) eta plataforma digitalen bidezko emisio eta lineako proposamenek gora egin zuten.

4.1.1. PREBENTZIO UNIBERTSALA ESKOLA EREMUAN

Eskola eremua ezin hobea da ikasleei hainbat gairen inguruko prestakuntza programak ezartzeko (heziketa afektibo-emozionala, berdinen arteko jazarpenaren prebentzioa, emozioen kudeaketa...).

Ikasleei zuzendutako proiektuetan, **Arabako landa inguruneko ikastetxe guzti-guztietan** hartu da esku, modu batera edo bestera, Audio eta Amurrio kenduta.



Guztira, 8.401 esku-hartze egin dira Lehen Hezkuntzako ikasleekin, eta 14.636 esku-hartze Bigarren Hezkuntzako nerabeekin; guztira, **23.037 esku-hartze egin dira**.

Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza

		URTEA				GUZTIRA
		2017	2018	2019	2020	
Prebentz. Tabakoa/Alkohola	Ikastetxeak	2	1	3	2	8 zentro
	Parte-hartzaileak	67	90	168	108	433 p-h
Heziketa afektibo eta emozionala	Ikastetxeak	14	14	17	10	55 zentro
	Parte-hartzaileak	700	710	918	496	2.824 p-h
Sare sozialak, Internet eta ziberjazarpena	Ikastetxeak	5	5	6	4	20 zentro
	Parte-hartzaileak	327	327	214	196	1.064 p-h
Trebet. Soziala, Gatazk. konp. eta Balio hezk.	Ikastetxeak	12	20	15	14	61 zentro
	Parte-hartzaileak	514	1.228	1.138	755	3.635 p-h
Ohitu. osasun. Elikadura	Ikastetxeak	5.	4	0	0	9 zentro
	Parte-hartzaileak	224	221	0	0	445 p-h

Bigarren hezkuntza eta batxilergoa

		URTEA				GUZTIRA
		2017	2018	2019	2020	
Prebentz. Tabakoa/Alkohola eta Kalamua	Ikastetxeak	2	8	10	3	23 zentro
	Parte- hartaileak	128	675	708	153	1.664 p-h
Plazeren eta arriskuen kudeaketa	Ikastetxeak	2	2	2	2	8 zentro
	Parte- hartaileak	82	94	139	149	464 p-h
Heziketa afektibo eta emozionala	Ikastetxeak	10	9	7	3	29 zentro
	Parte- hartaileak	856	936	1.075	515	3.382 p-h
Agresib., Gatazk. konp. eta Jazarp. preben.	Ikastetxeak	2	...	1	1	4 zentro
	Parte- hartaileak	301		73	25	399 p-h
Preb. droga-mend. Arte eszenikoak	Ikastetxeak	4	3	5	1	13 zentro
	Parte- hartaileak	265	300	274	33	872 p-h
Lehiak. Bizitza osasung. moldeak	Ikastetxeak	2	2	1	1	6 zentro
	Parte- hartaileak	383	426	259	291	1.359 p-h
Prebentz. Elikadura nahasmenduak	Ikastetxeak	3	3	1	2	9 zentro
	Parte- hartaileak	131	111	21	96	359 p-h
Autoestimua eta Emozioen kudeaketa	Ikastetxeak	6	6	4	10	26 zentro
	Parte- hartaileak	333	347	195	454	1.329 p-h
Sare sozialak, Internet eta ziberjazarpena	Ikastetxeak	7	7	7	2	23 zentro
	Parte- hartaileak	419	565	356	75	1.415 p-h
Preb. Antsietatearen kontrola	Ikastetxeak	1	4	2	3	10 ikastetxe
	Parte- hartaileak	67	190	125	96	478 p-h
Kerik Gabeko Gelak	Ikastetxeak	3	5.	2	4	14 zentro
	Parte- hartaileak	125	221	71		417 p-h
Adikzioei buruzko azterl.	Zentroak Ikasleak	3	...	...	...	3 zentro

	Parte-hartzaileak	1.154				1.154 p-h
Kalamuarekiko esposizioa	Zentroak Ikasleak	...	2	4	...	6 zentro
	Parte-hartzaileak	---	225	525	...	750 p-h
Nerabeengana Hurbilduz	Ikastetxeak	...	...	...	3	3 zentro
	Parte-hartzaileak				594	594 p-h

Egindako ebaluazio kualitatiboetan ikus daitekeenez, hasiera batean planteatutako helburuen asebetetze eta betetze maila handia da. Horri buruz, honako alderdi hauek egiaztatu dira:

- Ikasleei begirako prestakuntza programen **eskariak** nabarmen egin du **gora** azken lau urteetan, asistentzia taulek erakusten dutenez.



- Hezkuntza komunitateak **sentsibilizazio eta kontzientzia handiagoa** dauka, nahi ez diren egoerak prebenitu ahal izateko prestakuntza tailerrak egiteko premiaren inguruan. Zentzu horretan, **Prebentzio Komunitariorako Foru Zerbitzu bakoitzak** ikastetxe bakoitzeko arduradunekin koordinatuta **egindako bitartekaritza lana ezinbestekoa izan da**, hautemandako premietara egokitutako esku-hartze erabakitzailea egitea ahalbidetu baitu horrek.
- Prestakuntza eskaintza dibertsifikatu egin da, eta **ikasgeletan emandako prestakuntzak** (hala nola, heziketa afektibo eta emozionalari buruzkoa, adikzioak prebenitzeari buruzkoa, emozioak kudeatzeari buruzkoa...) **prebenitzen** eta askotariko egoerak kudeatzeko oso baliagarriak diren **jarraibideak ematen** laguntzen duela ikusi dugu. Hortaz, arrisku faktoreen aurrean **babes faktoreak areagotzen laguntzen** duen funtsezko elementua da.

- Aztertutako aldian, **Prebentzio Komunitariorako Foru Zerbitzuek** hezkuntza komunitatearekin egindako **informazio, aholkularitza eta bitartekaritza lanak** Ikasleen Gurasoen Elkartek (IGE) eta irakasleak gehiago ahalduntzea ekarri du, eta **eragin biderkatzailea izan du adikzioen prebentzioaren eremuan.**
- Hori dela-eta, **balorazioa oso ona** dela balioesten dugu.



4.1.2. PREBENTZIO UNIBERTSALA, SELEKTIBOA ETA ADIERAZIA EREMU KOMUNITARIOAN

Ekintzak	URTEA				GUZTIRA
	2017	2018	2019	2020	
Gazteen bitartekarit. prestak. ikast.	2 ikastaro 33 begirale	5 ikastaro 75 begirale	5 ikastaro 55 begirale	2 ikastaro 10 begirale	14 ikastaro -- 173 lagun
Alkoholik gabeko koktelen tailerrak	10 tailer -- 206 parte-har.	8 tailer -- 146 parte-har.	7 tailer -- 236 parte-har.	0 COVIDagat ik bertan behera	25 tailer -- 588 lagun
Bestelako aisia sustatzeko tailerrak	3 herri -- 10 saio -- 61 parte-har.	3 herri -- 9 saio -- 60 parte-har.	4 herri -- 8 saio -- 71 parte-har.	0 COVIDagat ik bertan behera	10 herri -- 25 saio -- 192 lagun
Drogak prebenitzeko irratia solasaldiak	10 saio	9 saio	11 programa	5 programa	35 programa emanda (EITB-Radio Rioja Alavesa)
“PrebenJaia” festetan alkoholaren arriskuak murrizt. programa	19 esku-hartze (18 gau + egun 1) -- 3.989 lagun	20 esku-hartze (19 gau + egun 1) -- 4.615 lagun	18 esku-hartze (17 gau + egun 1) -- 3.680 lagun	0	60 esku-hartze (gaueko 57 + eguneko 3) -- 12.284 lagun
Gazte lonja eta lokaletan esku hartzeko programak	Lonja 5 -- 83 gazte	-----	Lonja 1 -- 10 gazte	0	Lonja 6 -- 93 gazte
“Info-Drogak” guneak	3 ekintza -- 306 lagun	3 ekintza -- 315 lagun	4 ekintza -- 621 lagun	0	10 esku-hartze -- 1.242 lagun

Testing -Drogak	2 ekintza -- 34 droga lagin -- 501 lagun	5 ekintza -- 76 droga lagin -- 104 lagun	9 ekintza -- 113 droga lagin -- 952 lagun	0	16 esku- hartze -- 223 droga analisi -- 1.557 lagun
ABA programa (Alkoholaren Banaketa Arduratsua, ostalaritzako profesionalekin)		3 udalerri -- 38 establez.	7 udalerri -- 51 establez.	0 (COVIDaga tik bertan behera)	10 udalerri -- 89 establez.



Esku hartzeko eremu honetan, askotariko ekintzak egin dira; beraz, erregistratutako datuak xehetasun handiagoz garatu behar dira, bilakaera eta progresioa ikusteko.

Hala, hona hemen eremu komunitarioaren barruan egindako programa hauei buruzko datuak:

- **“PrebenJaia”** programa. - Jai inguruneetan alkoholaren kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko programa.
- **“ABA - Alkoholaren Banaketa Arduratsua”** programa, ostalaritzako eta tokiko merkataritzako profesionalekin.
- COVID-19aren pandemiak eragindako egoeraren ondorioz 2020an modu espezifikoan garatutako ekintzak.

4.1.2.1. **“PREBEN-JAIA”** programa

“PrebenJaia” izan da eremu komunitarioko programa esanguratsuenetakoa bat. 2006an hasi zuen ibilbidea, eta bilakaera progresibo eta etengabea izan du 13 urte hauetan. Guztira, 64.581 alkoholemia tasa neurtu dira herrietako udako jaietan.

2017-2020ko Planaren ebaluazio aldian, 2020an alarma egoeraren ondorioz programa bertan behera geratu bazen ere, “PrebenJaia” karpeta honako datu ebolutibo hauek erregistratu dira:



2017-2019ko positiboen eta negatiboen tasen bilakaera

URTEA AÑO	Esku- hartze en kop. Herrie- n kop.	Egindako testen kop.	Test negatiboak			Test positiboak		
			Gizonak	Emakum.	Negat. %	Gizonak	Emakum.	Posit. %
2017	19	3.989	1.203	796	50,11	1.284	632	48,03
2018	20	4.615	1.405	906	50,08	1.477	707	47,32
2019	20	3.680	1.094	739	49,81	1.241	606	50,19
GUZTIRA / TOTALES		12.284	6.143		50,01	5.947		48,41

Bestetik, honako taula honetan, arnastutako airean alkoholaren erregistro positiboa (legez baimendutakoaren gaintekoa) eman arren etxera itzultzeko ibilgailua hartzeko asmoa zutenen datuak jasotzen dira.

Zentzu horretan, programa oso garrantzitsua izan da, alkohol kontsumoak prebenitzeko eta jai eremuetako kontsumoarekin lotutako trafikoko istripu posibleak prebenitzeko tresna izan baita.

Tasen eta gidatzearen bilakaera

URTEA AÑO	Esku- hartze en kop. Herrie n kop.	Egindako testen kop.	Gidariak / Conductores/as (guztizkoaren gaineko ehunekoak)					
			Gidariak guztira	Gidarien tasa negatiboa		Gidarien tasa positiboa		Gidarien % Tasa positiboa (guztizkoa ren gainean)
2017	19	3.989	1.273	855	% 67,16	418	% 32,84	10,48
2018	20	4.615	1.534	1.008	% 65,71	526	% 34,29	11,40
2019	20	3.680	1.017	655	% 64,41	362	% 35,59	9,84
GUZTIRA / TOTALES		12.284	3.824	2.518 lagun	% 65,85	1.306 lagun	% 34,15	10,63

Nahiz eta esanguratsua izan gidari gehienek negatibo eman zutela (10etik ia 7k), legez baimenduta dauden alkoholemia tasen azpitik egon baitziren, pertsonen % **10,63k** etxera itzultzeko ibilgailua hartzeko asmoa zutela detektatu zen (**1.305 lagun**, 2017-2019 aldian). Guztiei eman zitzairen legearen arloko arriskuen, istripu tasen eta abarren berri, arriskuak murrizteko jarraibideak ematearekin batera.

4.1.2.2. Alkoholaren banaketa arduratsua programa

Programa berri hau Prebentzio Komunitariorako Foru Zerbitzuek 2018an sustatuko ekintzei gaineratu zitzairen.

Bada, honako hauen artean oreka tenkatua aurkitzea da programaren helburua: (i) alkoholak aisialdiko eremuekin duen harremana, (ii) alkoholaren salmentak eta banaketak dakarten negozioa eta (iii) gehiegizko kontsumoei lotutako arriskuen prebentzioa eta kudeaketa. Erronka horretan, komunitate osoak egon behar du inplikatur, eta ostalaritzaren nahiz

alkohola saltzen duen merkataritzaren sektoreko profesionalak modu aktiboan inplikatzeko premia ikusi behar du, irtenbideak eta alternatibak elkarrekin bila daitezen heziketa eta prebentziozko ekintza honetan.



Programa egin den bi urteetan (2018an eta 2019an), 99 establezimendu zenbatu dira, eta horietatik 91k hartu dute parte (% 91,9k).

Urtea	Udalerri parte-hartzaileak	Establezimendu parte-hartzaileak
2018	3	40 establezimendu (ostalaritza)
2019	8	51 negozio (Ostalaritzako 41 establezimendu, 7 supermerkatu eta 3 txosna)
2020	0 (pandemia egoerarengatik bertan behera)	

Honako foro hauetan, jendaurrean eman da programaren berri:



- Komunikabideak: Albistea eta erreportajea EITB taldearen **“Teleberri”** eta **“Gaur egun”** albistegietan (2019ko apirilak 20).
- “Praxi komunitario onaren” aitortza Gironako Unibertsitateak, Gironako Diputazioaren Organisme de Salut Pública erakundeak eta Edex fundazioak antolatutako **“Bizitzarako Trebetasunen Nazioarteko V. Mintegian”**. Girona, 2019ko urriaren 15etik 17ra.
- Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiken Sailak ematen duen **“BeBai” saria**, **“Arabako gizarte zerbitzuen jarduera on”** gisa (2021). (Europa Biltzar Jauregia. Gasteiz, 2021eko ekainaren 28a).



4.1.2.3. Programa komunitarioak COVID-19aren PANDEMIAN

Azaldu moduan, 2020an COVID-19aren pandemia agertu izanak eta alarma egoera deklaratu izanak aurrez aurreko edozein jarduketa mota “de facto” bertan behera uztea ekarri zuen, eta, beraz, ordura arte burututako ekintzen metodologia birpentsatu behar izan zen.



Ondoren, edukierak mugatu ziren, eta murrizketak ezarri; hartara, hautematen ziren premiei erantzuten jarraitu ahal izateko ahalegin tekniko eta profesional handia egin behar izan zen.

Hausnarketa lan horren ondorioz, esku-hartzeak konfiguratu ziren, eta errealitate berrira egokitu. Batetik, konfinamendu garaiko isolamenduaren inpaktua eta arriskuak gutxitzeko jarduketak antolatu ziren (emozioen eta emozio desorekaren kudeaketa), eta, bestetik, nerabeen taldeekin bitartekaritza lanak egin ziren, jokabide osasungarri eta arduratsuak sustatze aldera, COVID-19arengatik ezarritako prebentzio neurriak behar bezala bete zitezen.

Horrekin, pandemia garaian eta “normaltasun berrira” pixkaka itzultzeko aldian, honako ekintza hauek garatu ziren eremu komunitarioan:

2020KO PROGRAMAK	Herriak / Udalerriak	Parte-hartzaileak guztira
Gazteekin jai guneetan esku hartzeko programa.	Bastida Oion	188
"Gazte-Konektion, sareko konexioa" proiektua (linean)	Agurain Araia Erriberabeitia Iruña Oka	284
Lonjetan eta lokaletan COVID neurriak betetzea sustatzeko programa.	Agurain Zuia Zigoitia	42
"Outreach" programa, ingurune irekian kontsumoak detektatzekoa.	Ondategi Goegi Agurain	72
Kale edanaren inguruan sentsibilizatu eta prebenitzeko programa.	Agurain	59
Gazteen bitartekarien prestakuntza (linean)	Arabako Errioxa Arabako Lautada	10
GUZTIRA		655

4.2. ONDORIOAK

2017-2020 Foru Planaren ebaluaziotik, zenbait ezaguera eskuratu dira. Ikaskuntza berri horien inguruan, errealitatera hoberen egokitzen diren esku-hartzeak mantentzea proposatu da, ingurunean nahi zen eragina izan ez dutenak baztertu dira, eta komunitatearentzat berritzaile diren beste batzuk gehitu dira. 2017-2020 aldiaren ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa egin ondoren, balorazioa oso positiboa dela esan behar dugu; izan ere:

1. Familia eremua

- Familiek beraiei zuzendutako gero eta prestakuntza gehiago eskatzen dute, eta, urtez urte, prestakuntza mota hori premietara egokitzen joan da.
- Familia programak egitasmo berriekin egokitu dira; adibidez, lineako prestakuntzarekin eta programa berritzaileagoekin.
- Balorazioa oso ona da, prestakuntza programa horiek ordutegietan, metodologian eta gaietan egokitu ahal izan zaizkielako premiei.
- Gero eta udalerri gehiago, programa gehiago eta asistentzia handiagoa egoteak argi erakusten du prozesua ona izaten ari dela.
- Familien arteko sareak indartzeko mekanismoak finkatzen ari dira, eta parte-hartze aktiboan nahiz eskarietan ikus daitekeen ahalduntzea egon dela esan nahi du horrek.
- Teknologiai eta sare sozialei esker, sakabanatutako eremu geografikoetan bizi diren pertsonak elkarri hurbiltzen ari zaizkio, eta gehiagotan hartzen dute parte.
- Familiei zuzenean ematen zaien prestakuntzak 5.372 lagunengan eragin du azken lau urteetan.

2. Eskola eremua

- Ikasleak emozioen kudeaketan, droga mendekotasunen prebentzioan, heziketa afektibo eta emozionalean eta abarretan trebatzea elementu giltzarria da mendekotasunezko jokabideak prebenitzeko.
- Prebentzio Komunitariorako Foru Zerbitzuek lotura lanak egiten dituzte; zerbitzu bakoitzak, erreferentziazko elementu aglutinatzailea den heinean, bere komunitatearen testuinguruan, eskola eremuari erantzun profesionala ematen laguntzen du.
- Hezkuntza eremuan, gero eta inplikazio eta parte-hartze handiagoak daude adikzioen prebentzioaren arloan, eta

izugarri egin dute gora bai esku-hartzeen eskariek, bai, ondorioz, asistentziak.

- Balorazioa, hortaz, oso ona da, burututako ekintzak ikastetxe guztietara iritsi direlako: 23.037 ikaslerekin hartu da esku.

3. Eremu komunitarioa

- Programa komunitarioek, nahiz eta alarma egoeraren ondorioz murrizketa gehien izan dituen eremua izan, inpaktu handia izan dute, 23.686 lagunek hartu baitute parte horietan.
- Dibertsifikatzen eta egokitzen joan dira, haur eta gazteen kolektibora iriste asmoz.
- Egokitzen horretan, hainbat forotan gailendu diren programa berritzaileak sartu dira (hala nola, "Alkoholaren Banaketa Arduratsua" izenekoak).
- Hori dela-eta, balorazioa oso ona da.

5

GAUR EGUNGO KONTSUMO ETA JOERETARAKO HURBILKETA

Kontsumoen eta mendekotasunezko jokabideen datuetarako hurbilketak **ikuspegi integrala** eduki behar du halaberrez, argi ikusi behar baitu gizabanakoen arteko lotura eta gizabanakoon jokabideak hainbat alderdiren arabera direla; besteren artean, alderdi hauek aipa ditzakegu: batetik, norberaren **emozioen kudeaketa eta nork bere buruarekin duen atxikimendua** eta, bestetik, kontsumitu ala ez kontsumitu erabakitzeko orduan jarrera kudeatzeko modua.

Bildu eta aztertu diren datuetan egiaztatu ahal izan dugunez, kontsumoen patroia aldatu egin da, bai kontsumoen intentsitatean, bai tipologian; adibidez, mendekotasunezko jokabide batzuk hazi eta hazi ari dira, sare sozialei (bideo-jokoak, Internet...) eta lineako apustuei dagokienez.

Halaber, COVID-19aren ondorioek asko eragin dute (eta eragiten jarraitzen dute) **agertoki berrien** konfigurazio aldakorrean, kontsumoen joeretan eta joera horien ondorio eta eraginetan, maila pertsonal eta partikularrean nahiz maila psikosozial eta interrelazionalean. Horrenbestez, agertoki berriek aurrera egin ahala, etorkizunean garatuko diren metodologiak eta ekintzak baldintzatuko dira, pandemiaren osteko “zaugarritasun berriei” erantzute aldera.

Ondoren azalduko ditugun datuen bidez, substantzien kontsumoetan eta substantziarik gabeko mendekotasunezko jokabideetan dauden joerak islatzen dira, hurbilketa orokor batean.

Datuak bildu eta horien laburpena egiteko garaian, aintzat hartu dira adikzioen eremuan eskarmentu eta aitortza handiak dauzkaten erakunde eta administrazioek idatzitako azken txostenetako datuak.

5.1. IKASLE NERABEEN ETA GAZTEEN KONTSUMO JOERAK

Herritar guztiak dira prebentzio ekintzak garatzeko irizpideen xede; alabaina, esku-hartze integrala egin nahi dugunez, kontsumoak hasi ohi diren bizi etapetara jo dugu, edo substantzietara hurbiltzeko eta/edo substantziak hartzeko lehen jokabideek arrisku gehiago dauzkaten etapetara, arrisku horien ondorioz arazo larriagoak sor baitaitezke.

Beraz, jokabide horietan dauden joerak ezagutzeko, biztanleria osoari begiratu behar zaio, baina, bereziki, nerabe eta gazteei.



Biztanlerian intzidentzia handiena duten substantzien kontsumoaren bilakaerari dagokionez (**alkohola, tabakoa eta kalamua**), *“Euskadiko haurren eta nerabeen errealitatea kopurutan”* txostenean (Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, 2018) jasotzen diren datuek adierazten dutenez, substantzia horien **kontsumoek behera egin dute nabarmen**, erantsitako taulan islatzen den moduan. Halaber, Droga-menpekotasunen Deustuko Institutuak *“Drogak eta Eskola IX”* (2017) txostenean emandako datuak ere jasotzen dira.

Oro har, txosten horretan jasotzen diren datuek diote legezko eta legez kanpoko drogen kontsumoek behera egin dutela 2006ko hamarkadako maximo historikoetatik; beraz, 2011n egindako ikerketaren neurketan behatutako joera berresten da. Aitzitik, gailu elektronikoak dibertitzeko eta aisialdian gozatzeko bitarteko bihurtu dira, eta gailu horien erabilera esponenzialki igo eta gailendu da kolektibo horretan; maximoak COVID-19aren pandemian erregistratu ziren.

Hala, egin diren azken ikerketetatik atera ditugun datuek honako joera hauek islatzen dituzte, substantzien kontsumo eta mendekotasunezko jokabide ugarienei dagokienez:

5.1.1. ALKOHOLAREN KONTSUMOA

Euskal kulturen, Europaren hegoaldeko beste kultura batzuetan bezalatsu, alkoholdun edarien kontsumoa **historikoki errotuta eta sozialki onartuta** dago; beraz, edariok erraz eskuratu daitezke, eta presentzia handia dute. Ondorioz, kontsumo horri lotutako arriskuen pertzepzioa gutxietsita dago. Pertzepzio baxu horrek ondorio larriak izan ditzake; bereziki, adingabeen artean, aro horretan burmuinak garapen eta heldze prozesuan baitaude.

- Nerabeen artean, alkoholarena da substantzien kontsumo **normalizatuena**. 2017an "Euskadiko adikzioei buruzko inkesta" erregistratuko datuek adierazten dute 15 eta 74 urte arteko **herritarren % 93,2k** bizitzan noizbait alkoholdun edariren bat dastatu dutela. Biztanleen % 81,2k azken 12 hilabeteetan egin zuten, eta % 71,5ek azken 30 egunetan.
- Adierazleek, halaber, alkoholdun edarien kontsumoa **adin handieneko** biztanleen artean kontzentratzen dela jasotzen dute, eta batez ere gizonek egiten dutela.

Alkoholodun edarien kontsumoaren prebalentzia orokorra, adin taldeen

Guztira	Adin tarteak							
	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	82,7	93,0	95,4	91,5	94,7	95,2	95,0	89,8
Azken 12 hilabeteetan	74,6	89,5	88,0	79,0	81,9	86,2	78,4	74,0
Azken 30 egunetan	55,5	81,2	74,7	70,0	72,2	76,2	70,2	66,6
Egunero*	0,0	1,4	2,9	3,3	2,9	11,0	24,5	33,4
Mujeres	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	78,8	88,6	94,8	92,8	95,3	94,3	93,5	82,0
Azken 12 hilabeteetan	70,4	87,2	83,1	76,3	77,5	83,4	75,4	62,9
Azken 30 egunetan	50,0	76,4	65,2	61,5	68,8	69,3	68,9	52,3
Egunero*	0,0	0,9	0,9	1,5	1,2	5,4	13,5	19,7
Gizonak	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	86,7	97,6	95,9	90,3	94,0	96,1	96,6	98,8
Azken 12 hilabeteetan	79,0	91,9	92,4	81,6	86,4	88,9	81,5	86,6
Azken 30 egunetan	61,2	86,1	83,4	78,4	75,6	82,5	71,6	82,9
Egunero*	0,0	1,8	4,8	5,0	4,6	16,2	36,0	49,1

(*) Alkoholodun edarien eguneroko kontsumotzat hartzen da azken 30 egunetan egindakoa.

ITURRIA: *Euskadiko adikzioei buruzko inkesta, 2017***arabera**

- Gazteenen artean, alkoholodun edarien kontsumoa **asteburuetan kontzentratzen da gehienbat**, baina ehunekoak ezberdinak dira sexuen artean. **Kontsumo arriskutsua edo gehiegizkoa egiten duten gizonen** ehunekoa emakumeena halako bi da (% 5,2 emakumeena, eta % 11,1 gizonena), eta 35 urtetik beherakoen artean kontzentratzen dira kontsumo horiek. Bestetik, adin tarte guztietan, gizonek kontsumo arriskutsu edo gehiegizko handiagoa egiten dute, emakumeek baino.

Guztizko biztanleriaren banaketa, asteburuetan alkoholodun edarien kontsumo tipologiaren arabera (2017). Sexuaren arabera bereizitako emaitzak

Guztira	Adin tarteak						
	15-24	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	GUZTIRA
Abstemioa	34,9	32,7	33,7	30,2	33,7	38,2	33,7
1a abstemioa	19,9	22,7	35,8	34,5	40,6	47,0	34,6
Ez oso edalea	26,3	28,3	23,4	27,5	22,2	14,3	23,6
Gehiegizko edalea	12,9	10,9	6,3	7,4	3,6	0,6	8,1
Arriskudun edalea	6,0	5,4	0,7	0,3	0,0	0,0	
Mujeres	15-24	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	
Abstemioa	40,5	41,3	37,5	35,4	36,2	53,9	40,1
1a abstemioa	18,7	22,8	42,4	45,2	48,6	40,1	38,5

Ez oso edalea	26,7	23,8	15,2	16,7	12,9	6,0	16,2
Gehiegizko edalea	10,8	8,6	4,9	2,7	2,3	0,0	5,2
Arriskudun edalea	3,3	3,5	0,0	0,0	0,0	0,0	
Gizonak	15-24	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	
Abstemioa	29,3	24,6	29,9	25,5	31,1	20,3	27,0
Ia abstemia	21,0	22,6	29,2	24,7	32,0	54,8	30,6
Ez oso edalea	25,8	32,5	31,7	37,4	32,0	23,7	31,3
Gehiegizko edalea	15,1	13,1	7,8	11,8	4,9	1,2	11,1
Arriskudun edalea	8,7	7,2	1,4	0,6	0,0	0,0	

Oharra: Erantzunak guztizko biztanleriaren gainean kalkulatu dira. ITURRIA: *Euskadiko adikzioei buruzko inkesta*, 2017

- Hezkuntza mailaren arabera erantzunek ere patroi argi bat erakutsi zuten: ikasketa mailak behera egin ahala, alkoholun edaririk hartzen ez zutenen ehunekoak gora egiten zuen (gizonengan nahiz emakumeengan).
- Alkoholun edariak hartzeak dakarren arriskuaren pertzepzioari buruzko datua deigarria da: aurreko ikerketetako datuetan jasotzen dena baino **sentsibilizazio handiagoa** dago, eta emakumeek dute arrisku horien gaineko pertzepziorik handiena.
- *“Drogak eta Eskola IX”* txostenak jasotzen duenez, unibertsitatez kanpoko **12 urtetik gorako ikasleen % 40,3k ohikotasunez hartzen dute alkohola** (kontsulta egin aurreko 30 egunetan, noizbait alkohola edan dute). Aurreko ikerketari dagokionez, zifra horrek 5,2 portzentaje puntu egin ditu behera (2011n, % 45,5ek edaten zuten), eta 17 puntu egin ditu behera, duela 11 urte egindakoarekin alderatuz gero (2006an, % 57,8k).
- **Asteburu**etako kontsumo arriskutsu eta gehiegizkoei dagokienez, joerak behera egin du pixkaka; halere, 12 eta 18 urte bitarteko euskal ikasleen % 20ri eragiten dio. Erregistratu den azken datuak dienez, **beherakada handia** gertatu da, 11,6 portzentaje puntu egin baititu atzera, 2011ko datuekin alderatuz gero, eta 16,3 puntu 2006koekin alderatuz gero (% 36,3).

- **Kontsumoaren prebalentzia handiagoa da, adinak gora egin ahala:** 12 urterekin, ikasleen % 4,6k edaten dute alkohola; 14 urterekin, % 30,2k, eta, 16 urterekin, % 56,5ek.
- **Lehenengo mozkorren batez besteko adinak 14 urte ingurukoa** izaten jarraitzen du. Hala ere, 2017an **Arabako landa eremuko** ikasleekin egindako azken txostenean ikus daitekeenez, hasiera **12,5 urtera** jaisten zen **herriko jaien testuinguruan**; izan ere, jai horietan, taldeek eta kuadrillek (gehienak mistoak dira, eta kideen adinari dagokionez heterogeneoak) lehenengo edari alkoholdunak hartzen zituzten.
- Nerabeen artean, alkoholdun edariak hartzeko modalitate berri bat hauteman da: **edari energetikoak eta alkoholdunak nahasten** dituzte (prebalentzia % 36koa da). Moda hori kolektiboan errotzen ari da, nahiz eta kontraesankorra izan, substantzia bizigarri bat (kafeina, taurina edo antzekoak) substantzia antagoniko eta depresore batekin (alkohola) konbinatzen baita. Horrela, nerbio sistema nagusiak mezu kontrajarriak bidaltzen dizkio burmuinari.

5.1.2. TABAKOAREN KONTSUMOA

Tabakoa da EAEko herritarren artean kontsumitzen den bigarren substantzia psikoaktiboa; **ikasleen % 35,1ek** erretzen dute. Ikerketek diotenez, kontsumoa ez da homogeneoa sexuaren, adinaren eta ikasketa mailaren arabera. "*Euskadiko Adikzioei buruzko inkesta*" (2017), ondorioek honako alderdi hauek azpimarratzen dituzte:

- Europako gainerako herrialdeetan bezala, kontsumoek lotura handia dute herritarren ezaugarri soziodemografikoekin; hau da, **ikasketa maila zenbat eta baxuagoa izan, kontsumoaren prebalentzia orduan eta handiagoa da**, gizonen nahiz emakumeen artean (emakumeek bizi zikloan egiten duten kontsumoa salbuespena da, gainerako kategoriek ez bezalako patroia jarraitzen baitu).


- Biztanleak tabakoaren kontsumoaren arabera bereiziz gero, gizonek harreman handiagoa dute substantzia honekin; halere, konparazio historikoaren datu ebolutiboek oso emaitza itxaropentsu eta onak ematen dituzte, tabakoa kontsumitzeko **prebalentzia** orokorrean 2008an hasitako **beheranzko joerari** eutsi baitzaio.

Tabakoaren prebalentzia orokorrekin denboran izandako bilakaera (1992-2017)
(%). Sexuaren arabera bereizitako emaitzak

		1992	1994	1996	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012	2017
Guztira	Noizbait	59,2	56,4	55,4	47,6	49,0	61,0	53,7	59,6	60,2	59,3	54,4	51,2
	Azken 12 hilabeteetan	-	-	-	-	-	-	-	-	38,2	36,1	31,2	25,9
	Azken 30 egunetan	38,8	38,9	35,2	34,4	35,0	36,9	35,0	35,6	35,2	33,5	29,3	24,6
	Egunero	-	-	-	-	28,6	-	30,3	30,9	32,6	31,3	25,5	22,1
Emakumeak	Noizbait	43,9	34,0	35,4	34,9	38,4	51,9	46,4	49,2	49,5	52,3	48,5	45,6
	Azken 12 hilabeteetan	-	-	-	-	-	-	-	-	32,9	31,5	28,5	22,5
	Azken 30 egunetan	28,0	24,7	22,0	25,7	26,7	31,2	30,5	29,5	29,8	28,5	26,2	21,3
	Egunero	-	-	-	-	23,2	-	26,2	25,7	28,7	26,8	22,8	18,7
Gizonak	Noizbait	73,1	75,8	70,7	61,9	58,1	69,2	60,9	70,2	70,7	66,6	60,0	57,0
	Azken 12 hilabeteetan	-	-	-	-	-	-	-	-	40,9	39,4	32,3	29,3
	Azken 30 egunetan	43,3	47,8	40,8	40,7	38,7	39,2	36,8	38,5	38,0	37,1	31,1	28,1
	Egunero	-	-	-	-	30,2	-	31,9	33,7	33,7	34,5	27,1	25,6


Datuak adinaren arabera estandarizatu dira. Iturria: Euskadiko adikzioei buruzko inkesta eta errolda demografikoa (EEI, 2017-01-01)

- Inoiz tabakorik erre ez duten emakumeen bolumenaren datua deigarria da (% 54,4), ohikotasunez erretzen duten emakumeak % 18,7 direlako. Datu horiek ez datoz bat gizonekin: % 43,0k ez dute tabakorik probatu, eta % 25,6 ohiko erretzaileak dira. "Drogak eta Eskola IX" txostenean horri buruz jasotzen diren datuak alderatuz gero, **inoiz erre ez** dutela dioten **gazteen ehunekoa % 64,9koa** da.
- 17 urtetik aurrera, herritarren % 20k diote egunero erretzen dutela, eta **18 urtetik gora erregistratzen dira tabako kontsumo handien** inguruko zifrarik altuenak.



- Nesken eta mutilen artean, tabako kontsumoaren inguruko aldeak ia-ia hautemanekin dira. Kategoria inizatiko edo **esperimentalean neska gehiago** daude, baina, **kontsumoaren maiztasunak** gora egin ahala, **gizonek kontsumo handiagoak** egiten dituzte, eta batzuen eta besteen arteko aldeak igo egiten dira.
- Nerabe erretzaileen proportzioak historian izandako ibilbideari dagokionez, "*Drogak eta Eskola IX*" txostenean biltzen diren datuetan argi ikus daiteke aurretiko ikerketek erakusten zuten goranzko **joera jaisten eta atzera egiten** ari dela: tabakoaren "ohiko" kontsumoan (azken 30 egunak), 7,6 portzentaje puntuko beherakada egon da 12 eta 18 urte bitarteko ikasleen artean.

Tabakoaren kontsumoaren bilakaera EAEko ikasleen artean (2006-2017)



- Zigarro elektronikoaren erabilera (**bapeoa**), gehien-gehienetan, **oso noizbehinkako kontsumoari** lotzen zaio. Probatu dutela adierazi dutenen % 7,5etik % 1,5ek baino gutxiagok egiten dute astean behin. Adin goiztiarretan, kontsumoak **16 urtera arte** lortzen du aipatzeko moduko maiztasuna; beraz, gazteenen artean “**modan**” dagoen praktika bat dela pentsa dezakegu.


5.1.3. KALAMUAREN KONTSUMOA

Kalamua da *Cannabis sativa* landarearen prestakinei deitzeko gehien erabiltzen den termino orokorra. Landare horrek 750 konposatu kimiko baino gehiago dauzka, eta, osagaien artean, tetrahidrokannabinola (THC) dago, horixe izaki osagai ezagunena eta psikoaktibitate gehien duena. THCaren kopurua ezberdina izan daiteke, hainbat faktoreren arabera (landarearen barietatea, bilketa mota, hazkuntza, kontsumitzen den zatia eta abar), eta horrek, aldi berean, kalamuaren eratorri ezberdinak sortzen ditu (adibidez, marihuana, hatxisa edo hatxis olio).

Kalamua da, kokainatik eta beste opiazeo batzuetatik urrun, helburu sendagarririk gabeko eta **legez kanpoko substantzia psikoaktibo landatu, kontsumitu eta trafikatuena** munduan. Azken urteotan, komunikabideetan eta debate publiko eta politikoan toki handiagoa hartu du, kalamuaren erabilera terapeutiko eta ludikoarekin edota erregulazioarekin zerikusia daukaten gaiekin.

- Gizarte Zerbitzuen Superintendentsiak (SISS) Eusko Jaurlaritzarentzat egin duen azken txostenean (“*Euskadiko adikzioei buruzko inkesta*”, 2017), 15 eta 74 urte bitarteko euskal herritarren artean prebalentzia handiena duen legez kanpoko substantzia izatearekin zerikusia daukaten zenbait alderdi jasotzen dira. Adibidez, **hamarretik lauk diote bizitzan noizbait kalamua probatu** dutela; % 8,6k azken urtean, eta % 4,9k azken hilabeteetan. Egutero erretzen dutela esaten dute

% 2k. Prebalentzia horiek altuagoak dira gizonen artean, aztertutako kategoria guztietan (kontsumo esperimentalak, duela gutxikoa, gaur egungoa eta egunerokoa).



- Adinaren ikuspuntutik begiratuta, kalamuaren **kontsumoa gazteengan** gailentzen dela ikus daiteke, 35 urtetik aurrera behera egiten baitu nabarmen. Gizonen kasuan, gaur egungo kontsumoaren (azken 30 egunak) gailurra **20 eta 24 urte** arteko biztanleen artean dago, eta, 25 urtetik aurrera, jaisten doa. Emakumeen artean, aldiz, kontsumoak prebalentzia handiagoa dauka gero, 25 eta 29 urte artean.
- 2017an **bizitzan noizbait kalamua probatu izana adierazi zutenen ehunekoa herritarren % 40koa** bazen ere, kontsumo handiarena (100 aldiz baino gehiagotan) **% 7,8ra** jaisten zen.
- "Euskadiko adikzioei buruzko 2017ko inkesta" eta "Drogak eta Eskola IX" txostenean bildutako datu kuantitatiboen artean ehunekoei dagokienez aldeak dauden arren, biek bat egiten dute esatean kalamuaren **aldizkako kontsumoa nolabait goraka hasi** dela eta 2006tik ikusten ari zen beherazko joera hautsi duela horrek. Hala, erregistratu diren azken datuetan, **kalamuaren kontsumo esperimentalak**, "duela gutxiko" kontsumoak (azken 12 hilabeteetan)

eta “gaur egungo” kontsumoak (azken 30 egunetan) bezalaxe, **gora egin duela** beha daiteke, nahiz eta azken horiek neurri txikiagoan egin. Genero-ikuspegitik begiratuta, kalamuaren eguneroko kontsumoak ere gora egin du, baina gizonengan bakarrik. Bizitzan zeharreko kontsumoa % 28,3tik % 39ra igaro da, eta maximo historikora iritsi; hein batean, gaztaroan kalamurik eduki ez duten belaunaldiak pixkaka desagertzen ari direlako.

Kalamuaren prebalentzia orokorren bilakaera, sexuaren arabera (%)

		1992	1994	1996	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012	2017
Guztira	Noizbait	22,9	22,6	28,6	24,4	26,8	27,6	31,7	36,2	33,8	34,2	28,3	39,0
	Azken 12 hil.	6,5	5,5	4,9	-	8,4	12,2	12,0	14,0	12,0	10,4	6,3	8,6
	Azken 30 eg.	3,2	3,4	3,8	4,4	5,5	8,9	9,0	11,0	8,7	7,2	4,3	4,9
	Egunero	0,5	0,9	1,9	1,3	1,5	1,9	4,1	3,8	3,9	2,5	1,7	2,0
Emakumeak*	Noizbait	11,6	12,0	15,3	15,0	18,0	18,9	20,5	25,6	22,9	25,2	21,0	31,1
	Azken 12 hil.	2,6	1,6	1,4	-	4,1	7,1	5,8	8,6	6,6	6,7	3,6	5,6
	Azken 30 eg.	0,7	0,9	1,2	1,8	2,6	4,6	3,8	6,4	3,9	4,0	2,1	2,4
	Egunero	0,1	0,2	0,3	0,4	0,4	0,6	1,0	1,8	1,3	1,0	0,8	0,7
Gizonak*	Noizbait	21,6	21,8	29,1	26,0	26,4	29,5	33,5	39,1	38,7	39,5	32,8	47,5
	Azken 12 hil.	5,1	5,4	4,6	-	8,1	12,0	13,0	14,2	13,9	12,2	8,0	11,7
	Azken 30 eg.	2,7	3,2	3,4	4,5	5,3	9,3	9,8	11,4	10,8	9,0	5,8	7,4
	Egunero	0,5	0,8	2,1	1,3	1,7	2,4	4,9	4,3	5,0	3,3	2,4	3,3

*Eguneroko kontsumotzat hartzen da azken 30 egunetan astean 4 egunetan gutxienez kalamua erretzea.

*Datuak adinaren arabera estandarizatu dira.

Iturria: Euskadiko adikzioei buruzko inkesta (2017) eta errolda demografikoa (EEI, 2017ko urtarrilaren 1ean)

- **Ikasleei** begirako azterlanean biltzen diren datuek erakusten dutenaren arabera, 12 eta 18 urte arteko herritarren **% 25,3k** kalamua hartu du azken urtean, eta ikasleen herenek adierazi dute bizitzan noizbait erre dutela. Horrek esan nahi du murrizketa bat egon dela, aurreko urteetako datuekin alderatuz gero (2011n, % 28,3 ziren, eta, 2006an, % 35,6). **16 eta 17 urte bitartean, ikasleen % 50 kalamua erretzen hasi da, baina 19 urterekin erregistratzen dira kontsumoen maiztasun handienak.**
- Kalamuaren ohiko kontsumoak **gora egiten du adinak gora egin ahala**; hala, 13 urtekoen % 4,5ek adierazi dute azken urtean kalamua erre dutela, 17 urtekoen % 44,6ren aurrean. Kalamua erretzen hasteko batez besteko adina 14,41 urteko da.


- Kalamuaren kontsumo tasa **handiagoa daukate mutilek** (% 31), neskek baino (% 23). **Kontrara, Oinarrizko Lanbide Heziketako** ikasle neskek ikaskide mutilak gainditzen dituzte, eta kontsumoetan buru dira, denbora serie guztietan. Datu hori sakon aztertu beharra dago, neskek eskola ingurune horretan dauzkaten zailtasunen adierazle izan daitekeelako, non, gainera, ikaskide gizonen baino emaitza akademiko hobeak lortzen baitituzte.
- 2017an, herritar gehienak kalamuaren **erabilera terapeutikoa baimentzearen alde zeuden (% 89,4)**, minbizia eta beste gaixotasun batzuk tratatzeari begira.
- Kalamuaren kontsumoaren gaineko **pertzepzio sozialari** dagokionez, ordea, **biztanleen % 62,1ek nahiko edo oso larritzat** jotzen dute, eta % 43,6k uste dute kontsumoa hazi egin dela. Hautemandako arriskuari dagokionez, herritarren % 55,5ek uste dute hilabeteetan behin kalamua erretzeak arazo gutxi edo bat ere ez dakarrela; proportzioa hori, baina, % 26,9ra jaisten da, astean behin kontsumitzeari dagokionez.

5.1.4. LEGEZ KANPOKO BESTE DROGA BATZUEN KONTSUMOAK

Lehen aipatutakoak kenduta, gainerako substantziek prebalentzia txikiagoak dauzkate. Hala, kokainak % 2,9koa dauka; anfetaminek % 2,5koa; estasiak % 2,4koa eta gainerakoek % 1,5etik beherakoa.

“Drogak eta Eskola IX” txostenean jasotzen diren datuek kontuan hartu beharreko emaitza hauek ematen dituzte:

Legez kanpoko drogen kontsumoaren bilakaera (bizitzan)



Kokaina

- 25 herritarretik bakarrik dio bizitzan noizbait kokaina probatu duela.
- 50 herritarretik batek baino gutxiagok hartzen dute hilero.
- Hasteko adina 15,25 urtekoa da, eta mediana 16 urtekoa. Kontsumoak adinarekin batera gora egiten duen arren, 19 eta 20 urte bitartean daude kontsumo mailarik altuenak. Eta mutilek neskek baino gehiago kontsumitzen dute.
- Batxilergoko 2. mailara arte, kontsumoak oso neurrizkoak dira; alabaina, Erdi Mailako Lanbide Heziketako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek askoz ere kontsumo maila altuagoak dauzkate.

Estasia

- Eskola aldian dauden 30 pertsonatik bakarrik kontsumitu du estasia edo antzekoren bat bizitzan behin gutxienez.

- “Bizitzan behin gutxienez” kontsumoaren batez bestekoa hamarren batekoa da (0,11).
- Azken hilabeteen estasia kontsumitu duten pertsonak ez dira 50etik 1era iristen (% 1,5).
- Estasia hartzen hasteko batez besteko adina 15,11 urtekoa da.
- Kontsumo mailarik altuenak 20 urtetik aurrera lortzen dira; hor, bostetik batek probatu du.
- Kontsumoa handiagoa da mutilen artean, nesken artean baino, aztertutako kategoria guztietan. Aldea hain da handia, ezen emakumeak ez baitira sexu-ikasketen taldeetan agertzen ia.

Anfetaminak - speeda

- 20tik 1ek esaten du kontsumitzen hasi dela, eta 100etik batek dio hilerok hartzen duela.
- Anfetaminak hartzen hasteko batez besteko adina 15,10 urte ingurukoa da; kontsumo mailak 18 urterekin hasten dira hazten, eta kontsumorik altuenak 20 urterekin erregistratzen dira.
- Erregistrorik handienak LHko zikloetan ikus daitezke; batez ere, mutilen artean. Neskek mutilek baino askoz gutxiago kontsumitzen dute, aztertutako kategoria guztietan.

LSD-A – haluzinogenoak

- Kontsumoaren batezbestekoak ezin daitezke apenas hauteman, kontsumo inizatikoa ere ez baita hamarren batera iristen batez beste (0,05).
- 20 urtera iritsi arte adinarekin gora egiten badu ere, probatzera bakarrik mugatzen da; kontsumoaren maiztasunak oso baxuak eta irregularrak dira.

Heroina


- Ikasleen % 1ek baino gutxiagok esaten dute probatu dutela; batez beste, 0,3k probatu dute.
Hondar kontsumoak edo kontsumo irregularrak dira, eta kontsumo inizatikoa 18 urtekoa da.

Arnasgarriak

- 50etik 1ek noizbait probatu du, eta 100etik 1ek esan du azken hilabetean kontsumitu duela.
- Kontsumoek gora egiten dute adinarekin batera, oso sekuentzia zehatzean, 20 urtera arte, baina “bizitzan noizbait” kategorian bakarrik (probatu), kontsumo sarriak oso urriak direlako, aldakuntza gutxi dauzkatelako eta banaketa irregularra dutelako.
- Aintzat hartu diren kategoria guztietan, mutilek ikaskide neskek baino gehiago kontsumitzen dute, batez ere DBH 4n eta Batxilergoko, OLHko eta EMLHko lehenengo mailetan.

5.1.5. ZORIZKO JOKOEKIN ETA APUSTUEKIN LOTUTAKO JOKABIDEAK

Teknologia dibertitzeko eta aisialdiaz gozatzeko bitarteko gisa erabiltzeko joera gero eta ugariagoak aipamen berezia merezi du. Aste barruan, mugikorra erabiltzen dute gehien (mezularitza, deiak eta Internet), batez beste 3,36 ordu egunean; gero, Internet eta sare sozialekin (2,39 ordu egunean), eta, neurri txikiagoan, bideo-jokoak eta lineako jokoak (1,5 ordu baino gutxiago egunean). Asteburuetan, berriz, mugikorra (mezularitza, deiak eta Internet) eta Internet eta sare sozialekin gailentzen dira (batez beste, 3,66 ordu egunean), eta, neurri txikiagoan, bideo-jokoak eta lineako jokoak (1,6 ordu baino gutxiago egunean).



- Interneten erabilera orokorraren erregistroak biztanleria osoan igo dira asko, baina **nerabe eta gazteen kolektiboan igo dira esponentzialki gehien**. Horrekin lotuta, zorizko jokoen eta apustuen alderdian (batez ere, online), ikerketak dio 15 eta 34 urte bitarteko euskal herritarren % 12,9 zorizko jokoen edo apustuen jokalaria aktibotzat jo daitezkeela. Hau da, biztanleek astean behin jokatzen dute gutxienez, edota urtean 500 euro edo gehiago gastatzen dituzte.
- Horietatik, % 2,9 arriskudun edo gehiegizko jokalaritzat jo daitezke; beraz, datuak zertxobait gora egin du, aurretik aztertutako aldiarekin konparatuz gero (2012an, % 2,1).
- Dirua jokatzen den joko eta apustuen artean, kategoria nagusia kirol arlokoa (% 29,2) eta karta-jokoak (% 23,7) dira, “makina txanponjale” deituriko makina tradizionalen (% 16,6) eta lineako jokoen (% 7,4) aurrean.

5.2. COVID-19AREN PANDEMIAK KONTSUMOETAN IZANDAKO INPAKTUA ETA AINTZAT HARTU NAHIZ EBALUATU BEHAR DIREN BESTE ONDORIO BATZUK

Plan honetan azaldu dugun bezala, 2020an COVID-19a agertu izanak eta, ondoren, alarma egoera deklaratu izanak, herritarren askatasunak eta mugikortasuna nazioartean mugatu izanarekin batera, **agertoki berriak** ekarri ditu, eta substantzien kontsumoen prebalentziekin, kontsumitzeko moduekin eta kontsumo ohiturekin zerikusia duten zenbait alderdi aldatu egin dira, pandemiaren aurreko datuekin alderatuz gero.

- COVIDaren osteko ondorioen artean, mundu mailako erakunde eta entitate batzuek adierazitakoak aipa daitezke; hala nola, **ziurgabetasuna, bakardadea eta bazterketarako beldurra, estigma edo babesgabetasuna**. Sentimendu horiek edozein pandemiatan sor

daitezke, eta **osasun mentaleko arazoekin** larriagotu daitezke, epe labur eta ertainean.

- Albo ondorio horiek, zeinak aire zabaleko jolasik ezaren, luzaroko estresaren, asperduraren eta urruntze sozialaren ondorio baitira, aintzat hartu behar dira, epe labur zein ertainean, **txertatu behar diren jarduketak zehaztu eta baliabide egokiak zein diren baloratu ahal izateko asmoz.**

Horri buruz, *“Informe para una valoración, reflexión y debate sobre el impacto de la covid-19 en adolescentes y jóvenes de la zona occidental de Álava”* (Castrillo, K. Vitoria-Gasteiz, 2021) txostenean jasotzen diren datuetan, estatu mailan dekretatutako konfinamendu aldiaren ostean egindako hainbat azterlan eta txostenen ondorioak beha daitezke, pandemiak kolektibo horretan izandako eraginari dagokionez. Hala, *“Adolescentes, familias y covid-19: ¿convivencia o supervivencia?”* (Amalgama7 eta Bartzelonako Fundació Portal) azterlanean tabako, alkohol eta kalamuaren eratorrien kontsumoari buruz esaten denez, kontsumoak behera egin zuten konfinamenduan; batez ere, ezinezkoa edo benetan zaila zelako substantzia horiek lortzea. Halere, 2020ko azarotik aurrera, kontsumoak gora egiten hasi ziren, aurreko balioak gainditzera iristeraino. **Tabakoaren** kontsumoa, adibidez, % 13,4koa zen COVIDa baino lehen, eta % 15,4ra igo da konfinamenduaren ostean. **Alkoholaren** kontsumoa % 7,8tik % 11,9ra igo da aldi horren ondoren (4,1 portzentaje puntuko igoera). **Kalamuaren** eratorrien kontsumoa, berriz, % 2,8koa zen aurretiko hilabeteetan, baina % 3,2ra igo zen martxotik maiatzera bitarteko konfinamenduaren ondoren.

- Pandemiaren aurretiko normaltasunera pixkaka itzultzeko aldiari, COVIDaren aurkako neurri murriztaile batzuk malgutu egin zirenez eta txertaketa tasa igo egin zenez, gizartea nolabait erlaxatu egin zen arriskuaren pertzepzioari dagokionean. Horrek, udako oporrekin eta herrietako “ez-jaiekin” batera, gazteek alkohola hartzeko modua

birkonfiguratu du, eta areagotu: **“kale-edana”** bihurtu da alkohola bide publikoan kontsumitzeko gunea.

Topaketa sozializatzaile mota hori, hainbat udalerrri eta eskualdetan, kezka eragilea zen pandemiaren aurretik ere; izan ere, nahiz eta formalki debekatuta egon, nolabait toleratu egiten zen. “Pandemiaren aurreko normaltasunera” itzultzeko pertzepzioaren ondorioz, baina, “botiloiak” intentsitate handiagoz berragertu dira geografia osoan, gaueko aisialdian gune itxietara sartzeko mugaketei eta murrizketei (funtsean, mahaietan kontsumitu ezin izatea, barrualdean maskara erabili behar izatea, edukierak mugatu izana eta ostalaritzari ordutegiak murriztu izana) erantzun gogorra emateko bezala, eta horrek nolabaiteko alarma eta kezka piztu ditu zona batzuetan.

Sozializatzeko gune horiek, “asaldura sozialaren” testuinguruan, erresistentzia aktiboko elkarretaratze bihurtu dira gazteentzat, eta, zenbaitetan, istiluak edota desordena publikoak sortu dira, topaketa mota horiei datxekien bestelako arriskuekin batera (zaborra, poltsak, hautsitako botilen kristalak, txiza toki publikoetan, kalteak hiri altzarietan...).

- Pandemiaren osteko beste ondorioetako bat, asko igo izanagatik nabarmentzen dena, **suizidio eta autolesio ahaleginena** da, **haur eta gazteen artean % 250 egin baitu gora**, osasun mentaleko profesionalek ohartarazi dutenez. “Epidemia isila” deiturikoa igo izanak egiaztatzen duenaren arabera, **15 eta 29 urte arteko gazteen artean suizidioa da naturala ez den heriotza kausa nagusia**. Datuak erregistratzen direnetik, inoiz ez da horrelakorik gertatu, eta adituek COVID-19aren pandemiaren leherketarekin lotzen dute auzia.


Pandemiak agerian jarri du **mundu emozional, afektibo** eta, azken buruan, **mentalak** garrantzi handia duela norbanakoarengan. Pandemian, emozioak kudeatzeko gaitasunen garapenean interferentziak egon dira; besteak beste, honako alderdi hauek aipa ditzakegu: heriotzak eta doluak, hurbileko senideen kutsatzeak,

ikastetxeen eta lantokien itxierak, berdinen arteko harremanen mugaketak, aire zabalean jarduera fisikoa egiteko ezintasuna, bizi ohitura osasungarrien galera... Horrek guzti horrek, beste kontu batzuekin batera (hala nola, “konpentsaziozko faktoreak” – informazioaren eta komunikazioaren teknologien hiperkontsumoa; familia barruko harremanak eta elkarreragina; tratu txarrak edo indarkeria matxista egiteko aukera; mugikortasunaren mugaketa...), sakon eragin du herritarrengan, are gehiago haur eta nerabeengan. COVID-19ak biztanleriaren sektore horrengan zuzenean izan dituen ondorioen iraunkortasuna ebaluatzeko dago oraindik ere (esaterako, **depresio eta antsietate** gertakariei dagokienez), ondorioak epe ertain eta luzera agertu ahalko direlako nortasunaren eta esperientzia emozionalen antolaketan.

- Esponentzialki izugarri igo den daturik badago, **bideo-jokoak** erabiltzen hasi direnen kopuruari dagokiona da (% 15,2); halaber, **Interneten eta sare sozialen** erabilerak ere gora egin du (% 68,9; % 72,2 emakumeengan, eta % 67,5 gizonengan). Gailu mugikorren erabilerak, oro har, gora egin du; batez ere, sare sozialetan nahiz Interneten ibiltzeari dagokionez: bai “gamer” bertsioan, bai apustu-jokoetan. Honako hau da konfinamenduan bideo-jokoak erabiltzen hasi zirenen daturik esanguratsuena: inkestari erantzun dioten % 7,2k bideo-jokoengatik nahasmendua eduki dezakete, DSM-V irizpide eskalaren arabera, eta ehunekoa handiagoa da 18 urtetik beherakoen artean.

GOFeren Prebentzio Komunitariorako Foru Zerbitzuek Arabako landa eremuan bildu dituzten datuek agerian jarri dutenez, familia ugari kezkatuta daude, konfinamendua dela-eta gailu horiek (mugikorrak, tabletak, ordenagailuak, jokorako gailuak –PSP edo Nintendo erakoak) erabiltzeko jarraibideak malgutu zituztelako eta, ondorioz, pantaila digitalekiko gainesposizioa sortu delako (“oversharing”). Familiek adierazitako datu horrek bat egiten du EMCDAk (Drogen eta Adikzioen Europako Behatokia) egindako inkestan eskuratutakoekin.

Datuon arabera, Internet erabiltzen dutela dioten % 11,2k erabilera konpultsiboa egin dezakete, CIUS (Compulsive Internet Use Scale) eskalaren arabera, eta jokabide hori askoz ere sarriagoa da gazteen artean.



Era berean, zantziek erakusten dutenaren arabera, teknologiarekiko gainesposizioak, konfinamenduaren eta “bizikidetza behartuaren” testuinguruan, **familia barruko gatazkak** areagotu ditu. Azkenik, adierazi egin behar dugu zonaldeetako ikastetxe batzuek hauteman dutenez ikasleak gero eta gehiago sartzen direla garapen pertsonal normalizatu baterako kaltegarriak diren edukietara (batez ere, **pornografiaren** kontsumoaz ari dira) eta bilakaera naturalarekin bat ez datozen praktikak, hiztegia... hauteman direla ikasleen arteko elkarriketetan. Horretaz gain, arrisku jarduerak egiteko edo indartzeko egoera arriskutsuagoak detektatu dituzte (**sextinga**, **groominga** eta, are, **ziberjazarpena**).

Azken finean, **aldaketa une erabakigarri baten** aurrean gaude, eta are gehiago **pandemiaren osteko fase** honetan. Beraz, datuak aztertzen eta eguneratzen jarraitu beharko dugu, bai esku-hartzeak agertzen joango diren errealitate berrietara egokitzeko, bai egoera berriarekin bat egingo duten estrategia eta programa berriak diseinatzeko.

6

FORU MAILAN ADIKZIOEN PREBENTZIOAN ESKU HARTZEKO PROPOSAMENAK ETA JARDUTEKO ILDO ESTRATEGIKOAK (2021-2026)

Prebentzio eredu komunitarioak, bada, adikzioen problematikaren aurrean komunitate osoa inplikatzeko eta modu aktiboan parte hartzea du helburu, eta babes inguruneak sustatzen ditu, bizi molde osasungarriagoak edukitzea errazten duten baliabide eta zerbitzu komunitarioak garatuz. Zentzu horretan, ekintzek honako xede hauek izan behar dituzte gogoan: adikzioei buruzko informazio objektibo eta egiazkoa ematea, herritarrek trebatu eta gaitzea eta arazoari aurre egiteko estrategiak ematea.

Komunitateari oro har eta bertako kideei jokabideak aldatzen, erabakiak hartzen eta kontsumoen edota mendekotasunezko jokabideen arrisku eta kalteak behar bezala kudeatzen lagunduko dieten bitarteko eta baliabideak hornitzea litzateke azken helburua.

Elementu estresagarrien aurrean, gure egoera ekonomiko, sozial, familiar eta pertsonalean, mendekotasunezko jokabideekin kritikoagoak diren eta jokabide horien presiorik ez duten bizi moldeak izateko aldaketak sustatzea du helburu esku-hartze komunitarioak.

Horri begira, komunitateak “elementu aktibo” bihurtu behar du, alternatiba integral, osagarri, iraunkor eta koordinatuak sortzeko, eta komunitatea osatzen duten taldeen premietara eta berariazkotasunetara egokitu behar du.

Horrenbestez, prebentzio ekintzak garatzean, tokiko komunitate bakoitzak oro har dituen egoera eta baliabideak aintzat hartu behar dira. Ikuspegi eragile batetik begiratuta, koordinazioa, bitartekarien prestakuntza eta

arreta eremuen arteko sinergien sustapena (bikoizketak saihesteko) azpimarratu behar dira.

Eremu horretan, prebentzio programek eta jarduketek helburu izan behar dute biztanleriak kontsumoen aurrean duen jarrera aldatzea, mendekotasunezko jokabideak murriztera bideratutako erantzukizunak beren gain hartuz.

Dinamika komunitarioa osatzen duten agenteek **substantzien kontsumoari** nahiz **mendekotasunezko jokabideei** lotutako arriskuaren pertzepzioa landu ahala, pertsonak erabakiak aske eta arduraz hartzeko gaitasuna areagotuko dute.


Prebentzio programen eta jarduketan plangintzan, honako **premisia** hauek jaso behar dira:

- Adikzioen prebentziozko joraketak integrala izan behar du, eta mendekotasunezko jokabide mota oro izan behar du xede, substantziak egon zein ez egon.
- Tresna dinamikoa izan behar du, eta aldatzen joan, gizartearen egoera aldatzen doan neurrian. Aldizkako ebaluazioekin, aldatu beharreko alderdiak modelatu ahalko dira.
- Tresna aglutinatzailea izan behar du, eta ekintzei koherentzia emateko gauza izan, plangintzan askotariko agenteekin koordinatzeko egitura aintzat hartuta, bikoizketak saihesteko.
- Fenomenoak esku-hartzearen eremu geografiko bakoitzean dituen berezitasunetara egokitu behar du prebentzioaren arloko plangintza estrategikoak.
- Horretarako, parte-hartzea erabili behar du esku hartzeko mekanismo gisara, eta biztanleriaren sektore guztien protagonismoa sustatu.

Adikzioak Prebenitzeko Foru Planean jasotzen diren prebentzio ekintzen hartzaileak, nagusiki, haur, nerabe eta gazteek, familia inguruneek eta komunitateko gainerako eremuek izan behar dute.


Halaber, esku-hartzeek modu zuzenagoan begiratu behar diete kontsumo neurritsu eta/edo arazotsuak, noizbehinkakoak eta ohikoak dauzkatenek, baita zaurgarritasun adierazleak izan ditzaketenei ere.

Irizpide horien arabera, funtsean, **hiru esku-hartze mota** bereizi behar dira:



Hurbilketa honek **KOMUNITATEA** finkatzen du ekintza profesionalaren elementu giltzarri gisara, eta beste eremu batzuk inplikatzeko ditu (**familia eta eskola**), eraldaketa prozesuak ekarriko dituzten esku-hartzeen ildoak ezartze asmoz. Horretarako, guztien artean bultzatu behar da zeharkako lan osagarri eta interakzional bat.

Eskema horren arabera, honako **ardatz hauek gidatu behar dituzte** IV. Foru Planean jasotzen eta aurreikusten diren **esku-hartzeak**:



FAMILIA EREMUA

Familia eremuan esku hartzean, honako gogoeta hauek aintzat hartuko dira:

- Familiekiko esku-hartzea eraginkorra izan dadin, garrantzitsua da pertsonen arteko faktoreak eta testinguraren beste faktore mota batzuk ere kontuan hartzea, eta, horri begira, ezinbestekoa da beste eremu batzuekin (eskola eta komunitatea) batera jardutea.
- Ez dago familiek esku hartzeko modu bakarrik, prebentzio estrategien sorta zabal bat behar baita hartzaileen, helburuen eta testinguraren arabera jardun ahal izateko.
- Prebentzio familiarreko programek arrakasta izaten dute, gurasoak agente kolaboratzaile bilakatzen direlako bai ekintzak planifikatzean, bai ekintza horiek garatzean. Hau da, gurasoak agente aktibo bihurtzen dira, eta programak beren gabezia, premia eta eskaeretara egokitzea ahalbidetzen du horrek.
- Informazioa eta prestakuntza dira esku-hartzeen oinarria, baina baita familiak prebentzio agente bihurtzeko motibatuta, inplikatu eta ahaldundutako lana ere.
- Eremu honetako prebentzio ekintzek familia eredu berriekin bat etorri behar dute. Hori dela-eta, esku-hartzeak errealitate berrietara egokitu behar dira, familiak atzeman, motibatuta eta haien parte-hartzea sustatzeko egokienak diren estrategiak zein izan daitezkeen aztertuta.
- Esku-hartzeek goiztiarrak izan behar dute, eta, osagai anitzak aintzat hartzeaz gain, eraginkortasun printzipioetan oinarritu behar dute.

Eremu honetan esku hartzeko ildoak **funtsezko bi ardatz** hauetan oinarritzen dira:

1. **Gaikuntza eta prestakuntza**, gurasoei lan hezitzailea gauzatzeko ezagutza, gaitasun eta trebetasun berriak emateko ekintzatzat hartuta. Gaikuntzak prestakuntza etengabea izango du oinarri, egunerokotasunean aurrez aurre dauzkaten egoerak maneiatzen lagunduko dieten gaiei buruzko tailerrak eta hitzaldiak eginda, prebentzio gisara. Familia sistemetan aldaketa positiboak eragitea da gaikuntzaren amaierako helburua.

2. **Ahalduntzea**. Ahalduntzea “*empowerment*” da ingelesez, eta “boterea eman” esan nahi du. Alabaina, kontzeptualizazio bakarra duen terminotzat jo ordez, **prozesu** gisa uler dezakegu: prozesu horretan, kolektibo baten premiak aztertu eta detektatzen dira, autonomia handiagoa lortu eta aldaketan protagonista bihurtu ahal izan daitezen behar dituzten tresnak emateari begira. Pertsonak beren gaitasunak martxan jarri eta bizi dituzten egoeretan aldaketa positiboak sustatuz beren premiak autogestionatzea bilatzen du ahalduntzeak.

1. ardatza. GAIKUNTZA

Xedea: Familien gaitasunak areagotzea, gurasoei adikzioak prebenitzeko behar diren ezagutzak eta tresnak emanez

PROGRAMA	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
Prestakuntza programak, FamiiEkin	Gurasoen trebetasunak hobetzerazuzendutako ikaskuntza, gaikuntza eta hausnarketarako esku-hartzeak. Familia dinamikaren funtzionamenduaren gainean hausnartzeko prozesuak sortzeko helburua daukate. Azken buruan, aldaketa prozesuak eragingo dituzten tresnak ematea da kontua, familia barruko komunikazioa hobetzen lagunduz, gatazkei aurre egiteko edo gatazkak konpontzeko estrategiak emanez eta gurasoek menderotasuneko jokabideen aurrean erantzun osasungarriak ematea sustatuz.	Plangintza familiarekin, taldeekin eta antolakundeekin edota hezkuntza komunitatearekin koordinatuta egiten da. Tailerren iraupena bat ala beste bat izan daiteke, egindako eskaeraren eta hautemandako premiaren arabera. Linean edo aurrez aurre egin daiteke. Ikaskuntza aktibo eta parte-hartzaleko teknikak erabiltzen dira, pertsonek ikasitako teknikak praktikan jar ditzaten.	Hainbat gai irburuzko hitzaldi zikloak: - Kontsumoen prebentzioa - Substantzia motak - Sare sozialen erabilera eta gehiegizko erabilera - Eskola jazarpena eta ziberjazarpena - Gurasotasun positiboa - Heziketa emozionala - Talde presioa

PROGRAMA	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
Familientzako irratisaioak	Astero familiei eta biztanleei oro har begira egiten diren irratisaioak.	Plangintza taldeekin, familiarekin eta GOFerekin itundutako hirugarren sektoreko entitateekin	Irratisaioak asteartero, 10:15etik 10:45era.

	Gizartearen eta familien inguruko gai interesgarrien gainean informatu, sentsibilizatu eta dibulgatzea da kontua, familien tailerretan eta beste programa komunitario batzuetan egindako esku-hartzeen eragin biderkatzailea sortzeko.	koordinatuta egiten da. Langile kualifikatuak dinamizatzen dituzte, eta Radio Rioja Alavesa irratiarekin lankidetzan garatzen dira (105.8 FM), gai horiek lantzeko gune bat sortuz.	
--	--	--	--

PROGRAMA	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
Jardunaldiak eta topaketak	Arabako lurralde historiko guztian familiEkin egiten diren tailerretako parte-hartzaileak elkarrekin egoteko eta haien artean harremanak eraikitzeko esparru bat sortzeari begirako topaketak dira. Urtean, bi topaketa egiten dira; bata landa eremuan, eta bestea Gasteizen.	Topaketa bakoitzak gai espezifiko bati heldzen dio, familiak adierazitako kezkei erantzuteko asmoz. Jorratuko den gaiaren inguruko adituek dinamizatzen dituzte bilerak. Topaketetan, esparru ponentzia bat aurkezten da, eta, gero, eztabaidatzeko eta hausnartzeko unea irekitzen da.	- Gasteizko gurasoen topaketa - Arabako landa eremuko familiarentzako topaketak

PROGRAMA	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
Informazio aldizkari eta	Aldizkako argitalpen monografikoak dira, eta	Argitalpenak paperean eta euskarri digitalean argitaratzen dira.	- Urteko aldizkari tematikoa

materialak	familiengana hainbat gai hurbiltzea ahalbidetzen dute, hausnarketarako oinarri irizpideak ezarri eta proposatutako edukietan sakontzeko baliabide bibliografiko osagarrien sorta bat eskainiz.	Zonaldean dauden gizarte baliabideen eta baliabide komunitarioen bidez zabaltzen dira, baina baita udaletako weben bidez eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen webaren bidez ere.	- Prebentzio materialen zabalpena
-------------------	--	--	--

2. ARDATZA. AHALDUNTZEA

Xedea: Familiei lidergo proaktiborantz laguntzea eta IGEak adikzioen prebentzioan erreferentziatzko agente aktibo gisa inplika daitezen sustatzea.

PROGRAMA	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
“Preben Familia” – Familia sareak eta/edo ebidentzian oinarritutako beste programa batzuk	Familien eta profesionalen antolakundeetako kideen artean elkarlaneko sareak sustatzea, adikzioen prebentzioan eta arriskuen murrizketan agente aktibo bihurtzeko daitezkeen. Gurasotasun positiboaren kontzeptua familiekin egiten den lanera sartzea, esku-hartze proaktibo eta gaitzailearen ikuspegitik abiatuta. Ikuspegi horrekin, familiek lan hezitzailea egiteko askotariko moduak daudela aitortzen da, eta erakundeek familiei laguntzeko duten erantzukizuna onartzen, seme-alaben zaintzarekin eta heziketarekin zerikusia	Hainbat hiritan martxan jarri dituzten eta ebidentzian oinarrituta dauden programen esperientziak jasotzea eta Arabako landa eremuko herrietan aplikatzea, antolakundeekin elkarlanean arituz. AMIA diagnostiko batetik abiatzea, familien antolakundeekin Ahuldadeak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak aztertuz eta horien gainean hausnartuz. Eraitzean oinarrituta, garatuko diren prebentziozko ekintzak planifikatzea. • Substantzia moten, arriskuen murrizketaren, jokabidezko adikzioen eta abarren inguruko	- Familien rolari buruz hausnartzeko jardunaldiak - Eztabaida taldeak - Prestakuntza arloko ekintza osagarriak

	daukaten lanak behar bezala betetzeari dagokionez. Ahalaginak batzea eta ezagutza eta jarduera onak sortu eta bilduko dituen sare komunitario bat sortzen laguntzea. Sare horrek, halaber, lan komun bati ekingo dio: batetik, babes faktoreak garatuko ditu, delako komunitatearen premiak eta eskaerak kontuan hartuz, eta, bestetik, baterako ekintza koordinatuak sortuko ditu, familiak, ikastetxeak, toki komunitarioak, elkarten mugimendua eta hainbat eremutako profesionalak inplikatur.	prestakuntza espezifikoaren ematea. • IGE-ek jai guzietan prebentzio ekintzak gauzatzea. • Parte hartzeko guneak (eskola kontseiluak...) sartzeko. • Eskudun toki erakundeei proposamenak egitea, udalerrietan gune osasungarriak sor ditzaten.	
--	--	--	--

ESKOLA EREMUA

Eskola adinean dauden adingabeen ezagutzak eta gaikuntza zabaldu eta hobetzea da hezkuntza eremura zuzendutako esku-hartzearen helburua, hezkuntza komunitatean adikzioak prebenitzeko programak ezarri, programa horien eraginkortasuna ziurtatzeko eta emaitzak hobetzeko.

Ikasgela da ekintzak garatzeko eta xede biztanleriarengan esku hartu ahal izateko toki egokiena, azkar eta eraginkor iritsi gaitzkeelako eskolatutako haur eta nerabeengana.

Ikasgelan, jarduera osagarriak egingo dira, tailerren bidez. Bada, mendekotasunezko jokabideei buruzko hainbat alderdi ez ezik, erabakiak modu arduratsuaren hartzearekin, autoafirmazioarekin eta arrisku egoera mota ororen aurrean jarrera kontzientea edukitzearekin lotutako edukiak ere landuko dira.

Ikuspegi horretatik, ohitura osasungarriak hartzeko ekintzak abiatuko dira, bai eta ikasleekin mendekotasunezko jokabideei aurre egiteko trebetasunak sorraraz ditzaketen alderdi afektibo, konduktual eta sozialak lantzeko ekintzak abiatu ere.

Esku-hartzeak eraginkorrak izan daitezen, **honako betekizun hauek** bete beharko dituzte:

- Denboran iraunkorrak izango diren eta xede biztanleriaren aldaketa prozesuei nahiz garapen sozial eta kognitiboari egokituiko zaizkien esku-hartze interakzioak izan behar dute, eta, besteak beste, kontuan hartuko dituzte adina eta helzte prozesuaren ezaugarriak.
- Jarduketan bidez, hezkuntza komunitatean inplikaturako beste agente batzuekin elkarlanean aritzeko esku-hartzeak egingo dira.

- Eskola eremuarekin sareak sortuko dira, komunitate mailan prebentzio ekintzen eragin biderkatzailea lortzeko. Gizartearen problematikei erantzungo dieten elkarlaneko guneak sustatzea da kontua (berdinen taldeak, familiak, elkarten mugimendua, komunitateko baliabideak...).
- Programak aldizka ebaluatu beharko dira, eraginkorrak diren baloratzeko eta, behar izatekotan, horiek egokitu eta etorkizunera begirako jarduketak sustatzeko.

PREBENTZIO UNIBERTSALA eskola eremuan

1. ardatza. INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA eta GAIKUNTZA

1. helburua: Haur eta nerabeak mendekotasunezko jokabideetatik babesteko faktoreak indartzea, hezkuntza prozesuan zehar bizi molde osasungarriak sustatuz, jokabide arriskuak prebenitzeko asmoz.

PROGRAMAK	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
Substantziei eta jokabidezko adikzioei buruzko prestakuntza tailerrak	Ekintza arrazoiuaren prestakuntza ereduaren edo teoriar oinarritutako esku-hartze hezitzaile eta prebentiboak.	Plangintza egitean, inplikatur dauden agenteekin koordinatutako gara.	Gai hauei buruzko tailerrak: - Alkoholaren arriskuak - Tabakoaren arriskuak - Kalamuaren prebentzioa - Sare sozialaren eta gailu teknologikoen (mugikorra, bideo-jokoak, apustuak eta lineako jokoak...) kudeaketa.
	Teoria horren arabera, haur eta nerabeei ematen zaien informazioak eraldaketa prozesuak eragiten dituz jarrera eta sinesmenetan, eta horrek zuzenean eragiten dio jokabideari.	Ikaskuntza aktibo eta parte-hartzaileko dinamika eta teknikak erabiliko dira, espiritua kritikoa garatu dadin.	
	Tailerrek honako gai hauek jorratuko dituzte: substantzien tipologia, ondorioak, arrisku jokabideak, arrisku murrizketa, jokabidezko adikzioak (mugikorraren, sare sozialaren, apustuen eta joko patologikoen prebentzioa) eta abar.	Ematen diren edukiek bat egingo dute hartzaileren etapa ebolutiboarekin.	
		Ondo entrenatutako langile kualifikatuak emango dituzte.	
		Iraupena 2-4 saiokoa da.	
		Aurrez aurrekoa edo lineakoa izan daiteke.	

PROGRAMAK	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
Emozioak kudeatzeko trebetasunei buruzko prestakuntza tailerrak	Esku-hartzeak hezitzaileak eta prebentiboak dira, eta ebidentzia	Plangintza egitean, inplikatur dauden agenteekin koordinatutako gara.	Honako gai hauei inguruko tailerrak:

	zientifikoan oinarritzen dira, hainbat trebetasun lantzeko, adikzioen aurrean babesteko faktore gisa. Hartzaileei gaitasun psikosozialak ematea da helburua, eguneroko errutinako arazoak, eskakizunak eta erronkak modu eraginkorrean kudea ditzaten, tabakora, alkoholera edo beste substantzia batzuetara jo beharrik izan gabe. Autoestimua erekin, talde presioarekin, emozioen kudeaketarekin, gatazken konponketarekin eta abarrekin lotutako gaiak lantzen dira.	Ikaskuntza aktibo eta parte-hartzaileerako dinamika eta teknikak erabiliko dira, esperimentu kritikoak garatu dadin. Ematen diren edukiek bat egingo dute hartzailearen etapa ebolutiboarekin. Ondo entrenatutako langile kualifikatuak emango dituzte. Iraupena 2-4 saiokoa da. Aurrez aurrekoa edo lineakoa izan daiteke.	- Talde presioa eta berdinaren arteko harremana - Gatazken konponketa - Autoestimua - Erresilientzia eta aserbitatea - Enpatia
--	---	--	---

PROGRAMA	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
Adikzioak ikasgelan prebenitzea, arte eszenikoaren bidez	Tresna artistikoak (zinema, antzerkia, mimoak eta abar) erabiliko dira, arrisku eta babes faktoreak nahiz adikzioen ondorioak era motibagarrian lantzeko.	Plangintza egitean, inplikaturak dauden agenteekin koordinatutako gara. Ikaskuntza induktibo, aktibo eta parte-hartzaileerako dinamika eta teknikak erabiltzen dira.	Are eszenikoekin zerikusia daukaten ekintza prebentiboak; hala nola: - Mimoak - Antzerki soziala

	Irakaskuntza esperimentalaren kontzeptuan oinarritzen da, eta, benetako bizitzako eszenak antzeztuta (betiere, gazte eta nerabeen interesekin eta motibazioekin lotuta), ikasleek prebentzio mezuak barneratzen dituzte, behaketaren eta hausnarketaren bidez. Espiritu kritikoa, sormena, autoestimua, autokontzeptua, talde kohesioa eta abar garatzea da helburua.	Behaketa, hausnarketa, abstrakzioan eta orokortzean oinarritutako dinamikak erabiltzen dira. Hau da, teoria eta helburua ulertzea da kontua, horiek benetako bizitzako egoerei lotuta. Ondo entrenatutako langile kualifikatuek emango dituzte.	- Musika - Zinema
--	---	---	------------------------------

2. helburua. Adikzioen arloko trebatzaileei gaitasunak eskuratzen laguntzea eta tresnak ematea

PROGRAMA	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
Informazioa, laguntza eta		Ikasturtearen hasieran, ikasgelan landu daitezkeen baliabide eta material pedagogikoen katalogoa	- Ezarriko diren tailer eta programei buruzko

orientazioa	Irakasleei gazte eta nerabeen kontsumoen inguruko informazioa eta aholkua ematea da asmoa, honako helburu hauekin:	aurkeztuko zaie irakasleei. Erabiltzen diren materialek eta programek metodologia parte-hartzaile eta inuktiboa dute. Langile kualifikatuekin edo zentroko irakasleekin egin daitezke.	informazioa emango da. - Eskola eremuan garatuko diren programetarako finantzazioa bilatuko da. - Materialak mailegatuko dira.
	• Irakasleek eta, oro har, eskola komunitatean parte hartzen duten pertsona guztiek kontsumoen inguruko kontuen gainean dituzten ezagutzak eta ulermena hobetzea eta • Eskola komunitateak irakasleak agente bihurtzeko duen gaitasuna handitzea, prebentzio arloko agente bihur daitezen eta, horrela, substantzien kontsumoekin zerikusia daukaten arazoak hurbiletik detektatzeko gai izan daitezen.		

EREMU KOMUNITARIOA

Eremu komunitarioa estrategiatzat hartzen da, eta, estrategia horretan, prebentzioak konpartimentu hermetikoetan banatutako esku-hartzea izateari uzten dio, osotasun bateratua izan dadin. Osotasun horretan, esku hartzeko eremu bakoitzetik (hezkuntza, familia, aisialdia eta denbora librea, lana, komunikabideak...) garatutako baterako lana biltzen da.

Testuinguru komunitarioaren beste elementu bat da, eta esku-hartzea koherentea, eraginkorra eta efizientea izatea du helburu, baita komunitatearen ahalmenak sustatzeko gai izatea ere, adikzioekin zerikusia daukaten arrisku faktoreak identifikatu eta murrizteko eta babes faktoreak bultzatzeko xedez.

Garatzen diren prozesuek herritartasuna eraikitzea izan behar dute helburu, eta/edo elkarrekin lotuta dauden hiru dimentsio hauek bermatzea (Morales, E. eta Rebollo, O., 2014):

1. Komunitate osoa sartzea, bere aniztasun guztiarekin, prozesu kolektiboetatik kanpo inor utzi gabe (bereziki, talderik zaugarrienak).
2. Herria (gizabanakoak eta taldeak) ahalduntzea, banakako eta taldeko erantzunkidetasun prozesuaren ondorioz.
3. Bizi baldintzak hobetzea, aukera berriak sortuz eta bizikidetzatza guneak eraikiz, premiei erantzute aldera.

Beraz, metodologia parte-hartzailea garatu ahal izateko trebetasun eta jarrerak dauzkaten profesionalek sustatu behar dituzte prozesuak, agente protagonista guztiak daudela ziurtatzearekin eta agente horien arteko interrelazioari bide ematearekin batera.

Zentzu horretan, Adikzioen Prebentzio Komunitariorako Foru Zerbitzuetako talde profesionalak erraztailea, dinamizatzailea, informatzailea, komunikatzailea, ikertzailea, gaitzailea, bitartekaria eta sortzailea izan beharko du (Marchioni, M., Morin L.M., Álamo J., 2013).



PREBENTZIO UNIBERTSALA eremu komunitarioan

1. ARDATZA. GIZARTE BITARTEKARITZAKO AGENTEEN GAIKUNTZA

Xedea: Talde, kolektibo edo elkarteetako kide diren eta gazteekin harremanetan lan egiten duten agenteei adikzioen eremuan esku hartzeko eta adikzioak prebenitzeko tresnak ematea.

PROGRAMAK	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
Prestakuntza tailerrak	Begiraleei, kale hezitzaileei eta gazteekin bitartekari aritzen direnei arazoak goiz detektatzeko, prebentzio lana egiteko eta prebentzio agente bihurtzeko tresnak ematea da helburua.	Prestakuntza tailerrek edo saioek iraupen malgua izaten dute, eta premietara egokituta egoten dira; Arabako lurralde historikoan, urtero egiten dira. Saioak garatzeko, hainbat gaitan adituak diren profesionalak daude.	<u>Honako gai hauei buruzko prestakuntza tailerrak:</u> - Adikzioen prebentzioa eta arriskuen murrizketa - Sexualitatea eta berdinen arteko harreman onak

- Eskola jazarpenaren prebentzioa
- Adingabeen kontrako indarkeriaren detekzioa eta jarduketa

PREBENTZIO SELEKTIBOA eremu komunitarioan

1. ARDATZA: GAIKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA, BERTINEN ARTEAN

Xedea: Bertinen taldeari gaitasunak eskuratzen laguntzea eta tresnak eskaintzea, arrisku jokabideak behar bezala kudea ditzaten.

PROGRAMAK	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
Informazio eta sentsibilizazio tailer eta kanpainak	14 eta 18 urte bitartean dauzkaten eta substantzietan (hala nola, alkoholarekin eta kalamuaarekin) lehenengo harremanak edukitzeen hasi diren gazteek gaitasunak eta tresnak garatzea sustatzeko esku-hartzeak dira. Substantzietan eta substantzien ondorioei buruzko informazio ematea eta substantzien kontsumoarekin loturiko arrisku egoerei aurre egiteko estrategiak indartzea da helburua. Gazteak elkartzen diren eremu formal nahiz informalean egiten dira.	Tailerren iraupena premietara egokitzen da, eta esku-hartzeak gazteen guneetan egiten dira: gaztelekuetan, lonjetan, aire zabalean... Esku-hartzeetan, saioak dinamizatzen dituzten profesionalak, adikzioen eremuan lan egiten duten elkarte edo entitateak edo begiraleak egoten dira, eta Adikzioen Prebentzio Komunitarioako Taldeen laguntza material eta teknikoarekin laguntzen dute.	<u>Gai hauei buruzko tailer eta erakusketak:</u> - Teknologien erabilera - Tratu oneko harremanak - Eskola jazarpenaren prebentzioa - Gatazken konponketa - Heziketa emozionala <u>Sentsibilizazio kanpainak:</u> - Tabakorik gabeko Nazioarteko Eguna - HIESaren Nazioarteko Eguna - Alkoholik gabeko Nazioarteko Eguna

2. ARDATZA. PLAZEREN ETA ARRISKUEN KUDEAKETA

Xedea: Gazteen aisialdiko guneetan mendekotasunezko jokabideei lotutako arrisku eta arazoak murriztea

Programa motak	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
Gazteen lonja eta lokaletan eta aire zabaleko tokietan esku hartzeko programa	Gazteak elkartzen diren guneetan (hala nola, gazteen lonja eta lokaletan eta aire zabalean) garatzen diren arriskuak murrizteko prebentzio ekintzak egiten dira.	Profesional espezializatuen bidez egiten dira: topalekuetara hurbiltzen dira, eta gazteen nahiz nerabeen taldeekin harremanetan jartzen. Esku-hartzea metodologia ez-inbaditzailea erabiliz egiten da, xede taldearen baimen eta onarpenarekin.	<u>Programak eta tailerrak:</u> - Plazeren eta arriskuaren kudeaketa - Autoantolakuntza eta autogestioa - Gazteen lonja eta lokaletan segurtasuna eta higieena - Bizikidetzari, errespetuari eta auzoko harremanei buruzko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa - Aisialdirako alternatibak - Asteburuaren gaineko

www.araba.eus

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

3. ARDATZA.- ALKOHOLDUN EDARIAK ARDURATSU BANATZEKO PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZA

Xedea: Edari alkoholdunen salmentarekin lotutako negozioetako profesionalak inplikatzeko, gazteen artean kontsumoak prebenitzeko eta, oro har, gehiegizko kontsumoei lotutako arriskuak eta kalteak murrizteko.

Programa motak	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
“ABA - Alkoholaren Banaketa Arduratsua” programa	Helburua aisialdi seguru, osasungarri, arduratsu eta kalitatezkoa sustatzea eta lortzea da, ostalaritzako eta tokiko merkataritzako profesionalen parte-hartzea eta inplikazioa lortuz.	Metodologia interaktibo eta parte-hartzailea erabiltzen da, eta, hor, elkarriketa irekia erabiltzen da datuak biltzeko. Elkarriketak ostalaritza establezimenduetan egiten dira, baita alkohola saltzen duten denda eta lokaletan ere, negozioetako arduradunen orduegietara, disponibiltetara, aukeretara eta premietara egokituta.	Programak: • ABA programa: Alkoholadun edariak saltzen eta banatzen dituzten lokaletako profesionalekin • Preben-Splash : Udako kanpaina, herrietako igerilekuetako aldi baterako tabernetan
	Estrategia, funtsean, establezimendu horien erabiltzaileen artean jokabide osasungarriak sustatzeko konpromiso pertsonal eta soziala sustatzean oinarritzen da. Sektoreko enpresaburuak eta langileak jarduketako protokoloak banatzen zaizkie, zerbitzu publikoekiko eta larrialdi nahiz segurtasun zerbitzuekiko koordinazioa sustatzeko, premia egoeretan erantzuteko gaitasuna hobetze	Honako hauek dira fase metodologikoak: - Begiraleak prestatzea. - Ostalaritzako arduradunekin elkarriketak egitea, honako gai hauei buruzko datuak biltzeko: • Kontsumoen tipologia, kontsumitzaileen profila (adina, sexua), gatazkak konpontzeko abiaututako ekintzak. • Makina txanponjaleen erabiltzaileen profila eta	

aldera.	adingabeen sarbidea kontrolatzeko neurriak. - Material espezifikoko ematen zaizkie (adikzioen arloan indarrean den araudia, alkoholaren eta beste substantzia batzuen kontsumoarekin lotutako gatazken kudeaketa, behin erabiltzeko erregeletak eta alkoholimetroak). - Prestakuntza espezifikoa: alkoholaren edo beste substantzia batzuen kontsumoarekin lotutako gatazkei aurre egiteko eta arriskuak murrizteko estrategiak. - Proposamen eragileen bilketa. - Ondorioak.
---------	--

PREBENTZIO ADIERAZIA eremu komunitarioan

1. ARDATZA.- SUBSTANTZIEN KONTSUMOEI LOTUTAKO ARRISKUEN MURRIZKETA

Xedea: Arrisku jokabideak dituzten gazteei substantziei buruzko egiazko informazioa eskaintzea eta kontsumo arduratsua sustatzea, bai eta kontsumoekin eta aisialdi guneekin lotutako egoeretan moldatzea eta halako egoerei aurre egitea sustatzea ere.

Programa motak	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
Alkoholaren eta beste	Kalteen murrizketa (kalteen mugaketa eta	Ahal dela, jai guneetan (herriko jaietan, jaialdietan, Gazte	Programak:

substantzia batzuen kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko informazio guneak	arriskuaren murrizketa izenak ere hartzen ditu) esku-hartze bat da, eta drogak hartzearen ondorio txarrak murrizteko helburuari ematen dio lehentasuna. Esku-hartze honek helburu hauek dauka: a) Ahalik eta kontsumitzaile gehienekin harremanetan jartzea. b) Kontsumoari lotutako arrisku biopsikosozialak murriztea. c) Jokabide aldageta eta osasunerako haziketa sustatzea. d) Kontsumo joerei buruzko datuak biltzea, ekintzak egokitzeko.	Egunetan...) egiten dira, gauzez; hala ere, esku hartzeko unean arabera, aldaketak egin daitezke. Bi modalitate daude: - Begirale espezializatuak izango dituen informazio karpak bat jar daiteke, substantzien tipologiari, ondorioei, polikontsumoari eta arriskuaren murrizketari buruzko informazioa emateko - Substantziak aztertu daitezke: kontsumitzen diren substantziak aztertzeko, substantziak aizuntzeari buruz informatzeko eta kontsumitzaileak arriskuaren murrizketan inplikatzeko laborategi mugikorra.	- Substantzien probak - Info-Drogak - "Preben-Gaztea" programa
Programa motak	Deskribapena	Metodologia	Ekintzak
Kale edanaren inguruko sentsibilizazio eta prebentzioa	Asteburuetako alkohol kontsumoa eta praktika horrekin lotutako bizikidetzako arazoak murriztea da esku-hartzearen helburua. Esku-hartze sozioheztaiak da, eta gazteek kale edanarako erabiltzen dituzten tokietan egiten da, zaraten eta hondakinen birziklapenaren inguruan sentsibilizatu eta kontzientziatzeko.	Metodologia aktiboa proposatzen da, berariaz trebatutako begiraleek kale edanarako erabiltzen diren tokietan esku har dezaten; batetik, arriskuaren sentsibilizazio, prebentzio eta murrizketa lanak egiten dituzte, eta, bestetik, kale edana zaratekin, zikinkeriarekin eta auzokideen kekek in lotzen duten alderdien inguruko ekintzak egiten dituzte. - Alkohola edaten den tokietara hurbiltzen dira. - Alkoholarekin ondorioei, edari energetikoari, birziklapenari eta edukiontzien erabilerari buruzko informazioa ematen dute. - Kuadrillekin sentsibilizazio kanpainak egiten dituzte.	• "RecapaCICLA" programa

7 EBALUAZIOA

Proiektu batek arrakasta izango du, edo porrot egin, neurri handi batean, ebaluazio mailaren arabera. Ebaluazioa “prozesuzkoa” da, eta ez “finalista” bakarrik, agertoki hipotetikoetan kokatzea baitakar. Zentzu horretan, garrantzitsua da ebaluazioa arriskuen, onuren, baliabideen, kostuen eta tartean diren elementuen gaineko baloraziotzat hartzea; hau da, proiektuak aurrera eramateko aukerarik onena bilatzea da kontua.

Ebaluazio orok, hortaz, egindako ekintzak jomuga eta helburu jakin batzuk lortzeko egokiak eta gai ote diren egiaztatzea du helburu.

Horrenbestez, erabaki hobeak hartzen lagundu behar du, arrisku nagusiak identifikatzen lagundu behar du (arriskuen ondorioak kudeatu ahal izateko), efizientzia eta konpromiso mailak areagotzea ekarri behar du, eta behar diren baliabideak optimizatu behar ditu.

Ebaluazioan, egin diren ekintzei buruzko informazio sistematikoa bildu eta aztertzen da, egindako proiektuaren gainean jarduteko xedez. Proiektu horri eutsi egingo zaio, edo aldatu egingo da, edo amaitu, proposatutako jomugak lortze aldera abiarazitako programa, plan eta estrategien edota lortutako ondorioen azterketan oinarrituta.

Ebaluazioa da esku-hartze batekin eragindako aldaketak neurtzeko bitartekoa, gaur egungo egoera eta aurreikusita zegoen egoera alderatzen baititu.

Honako hauek dira ebaluazioaren ezaugarri nagusiak:

- **Barne onura dakar**, aukera ematen baitu komunitateko kideen beharrak, nahiak eta ezaugarriak ebaluatzeko, oztopoak eta alderdi bideratzaileak identifikatzeko eta programaren jarduerak eta horien ondorioak deskribatzen laguntzeko.
- **Esku-hartzea aldatzen eta doitzen laguntzen du**, ekintzetan lehentasuna ezarriz, eta, halaber, plangintzaren etapan aurreikusi gabeko euskarri komunitarioak mobilizatzen laguntzen du.
- **Ekintzen ondorioak baloratzen laguntzen du**: parte-hartzaileek jokabideak aldatu ote dituzten, trebetasunak eskuratu ote dituzten, parte-hartzeak gora egin ote duen, erabilitako baliabideak baliozkoak ote diren, kostuak eta onurak orekan ote dauden...

Ezinbestekoa da prebentzio estrategia egoki bat aukeratzea eta funtzionatzen duen ala ez edo ahalik eta modu efizienteenean egiten ote duen jakitea. Eta, horretarako, nahitaezkoa da ebaluatzea. **Funtsezkoa da ebaluazioa ondo planifikatzea, esku-hartzea eraginkorra izan ote den zehaztea ahalbidetuko duten baliozko adierazleak lortzeko eta emaitza onak lortzeko estrategia eraginkorrenak zein diren jakiteko.**

Prebentzioaren eremuan, ebaluazioak helburu garrantzitsuak betetzen ditu; horien artean, honako hauek gailentzen dira:

- ✓ Aurretik prebentzioko estrategiarik egokiena hautatzea, esku hartu nahi den egoerari aurre egiteko.
- ✓ Prebentzio programen kalitatea eta diseinua hobetzea.
- ✓ Xede biztanleriarengana iristea eta aurreko ebaluazioen arabera egokienak diren jarduketak txertatzea.

Plana hainbat urtez indarrean egongo denez (2021-2026), ezinbestekoa da ebaluazio etengabea egitea, aurreikusitako helburuen betetze maila baloratzen joateko eta metodologian nahiz esku-hartzeetan egokitzen diren zuzenketak egiten joateko.

Ebaluazioa bi sistemaren bidez egin behar da:

1. PROZESUEN EBALUAZIOA

Ebaluazio mota honetan, aurreikusitako ezarpen plana nola garatu den azaltzen da. Zentzu horretan, planean sartuta dauden faseen balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa bilduko dituen metodologia bat aukeratu behar da:

- Programatutako prebentzioko esku-hartze guztiak egin ote ziren egiaztatzea.
- Zer programa eta jarduketa burutu ziren, diseinuak funtzionatu ote zuen eta zenbateko maiztasun eta intentsitatekin egin zen zehaztea.
- Programa zer hartzailerengana iritsi zen, hartzaile horien parte-hartzearen maila zein izan zen eta programa xede taldera iritsi ote zen egiaztatzea.
- Esku-hartzeen kalitatea baloratzea, parte-hartzaileen eta programa burutzeaz arduratu zen talde teknikoaren asebetetze-mailaren arabera.

Azken batean, prozesuaren, ezarpenaren eta parte-hartzaileen ezaugarrien alderdi guzti-guztiak deskribatzen ditu, baita hartzaileak lortu, atxiki eta aktibo nahiz parte-hartzaile mantentzeko erabilitako metodoenak ere.

2. EMAITZEN EBALUAZIOA

Esku-hartzearen ondorioak baloratzea eta, jarduketak gauzatu ondoren, aurreikusitako helburuak lortu ote diren egiaztatzea da helburua. Honako alderdi hauek dauzka:

- Emaitzak neurtzeko erabili diren prozedura motak deskribatzea (ebaluazio fitxa eta abar).
- Emaitzei buruzko informazioa lortzeko erabilitako prozedurak identifikatzea.
- Esku-hartzeak xede taldean izandako ondorioak xehatzea (bereziki, adikzioekin zerikusia daukaten jokabideei dagokienez).
- Ebaluazioan ateratako ondorio nagusiak zehaztuko dituen eta ondorio horiek aurreko urteetako emaitzekin alderatuko dituen txosten bat idaztea.

Zentzu horretan, ebaluazio motaren ezaugarriak kontuan hartu beharko dira, aurreikusitako ekintzen garapena prozesuaren zein unetan dagoen. Hori dela-eta, proiektu baten ebaluazioaren abantailak neurtzeko orduan, garrantzitsua da ebaluazioa noiz egin den aintzat hartzea. Ez da gauza bera proiektua hasieran edo fase ezberdinetan ebaluatzea, ondorioak ere aldatu egiten direlako.

Esku-hartzearen unearen arabera, honako hauek dira ebaluazio motak:

a) Hasierakoa: Proiektua onetsi aurretik egiten da, proiektuaren bideragarritasuna, eraginkortasuna eta egokitasuna zehazteko. Oro har, hainbat aukeraren artean aukera egingarri bat hautatzea eta proiektuaren premiei egokitzea da kontua.

b) Etengabea: Izenak berak adierazten duen bezala, proiektua abian dela egiten da. Monitorizazioaren antzekoa da, fase bakoitzerako proposatu diren helburuak lortzen doazen zehazteko eta, beharrezkoa bada, lanei bide emango dieten aldaketa edo zuzenketak egiteko tresna eraginkorra baita.

c) Amaierakoa: Ebaluazio mota hau proiektua amaitzean egiten da, eta plangintza faseko helburuak bete ote diren zehaztea du helburu. Prozesuaren alderdi on eta txarrak miatu behar dira.

d) Inpaktuarena: Inpaktuaren ebaluazioa proiektua amaitu eta denbora batera egin behar da. Hasierako planak ekarri dituen aldaketak (onak eta txarrak) ezagutzea da helburua. Irismen handiko proiektuetarako gomendagarria da, 4 edo 5 urteko epean ezartzen baitira.

Azaldutako guztiarekin, adierazi beharra dago GOFEn Adikzioen Prebentzio Komunitariorako Foru Zerbitzu bakoitzak honako hauek biltzen dituela:

- **Esku-hartzearen eremu bakoitzean garatutako jarduketa guztietan** izandako parte-hartzearen mailari, asebetetze mailari, hobetzeko proposamenei... buruzko datuak. Ebaluazio honekin, beharrezko birdoikuntzak egin daitezke, eta ekintzei jarraitutasuna eman, edukiei dagokienez. Ekintza guztiak aurretik egindako analisiaren eta proposamenen emaitza dira.
- Bestetik, Prebentziorako Foru Zerbitzu bakoitzak aldi horretan egindako ekintzak jasotzen dira, urtean behin. Datuak “**urteko memorian**” islatzen dira, lurralde mailan prebentzio komunitarioaren arloan egindako esku-hartzeen multzoa ikusteko, garatutako ekintzen inpaktu orokorraren maila zein izan den jakite aldera.
- Erregistroetako datuak aztertuta, Talde Teknikoak hurrengo ekitaldian aplikatuko diren irizpide orokorrak ezar ditzake, metodologiak berrantolatu eta/edo berregokitzeari, prebentzio ekintza berritzaileak planifikatzeari, Prebentzio Komunitariorako Foru Zerbitzuetan irizpide komunak aplikatzeari, baliabideak optimizatzeari eta abarri

dagokienez, esku-hartzearen xede den komunitate bakoitzean sentitu eta hautemandako premiei erantzun eragilea emate aldera.

- Azkenik, Prebentziorako Talde Tekniko osoak egiten du inpaktuaren ebaluazioa, **dagokion foru planaren** indarraldia amaitu ondoren. Horrela, berriro diseinatu daitezke hurrengo planaren errealitate ebolutibo eta dinamikoan jasoko den esku-hartzerako ildo estrategikoak.

Bada, **egiten diren ekarpenei esker, garai berrien premietara egokitu ahal izango dugu proiektua edo plana**, Arabako landa eremuan Adikzioak Prebenitzeko Foru Plan honetan **2021-2026 aldirako** egin nahi izan dugun bezala.

Erreferentzia bibliografikoak

Erreferentzia bibliografiko osagarriak

- Benotsch, E.G., Sawyer, A.N., Martin, A.M., Allen, E.S., Nettles, C.D., Richardson, D. & Rietmeijer, C.A. (2017). *Dependency trails, relationship power, and health risks in women receiving sexually-transmitted infection clinic services*. *Behaviour Medicine*, 43(3), 176-183. Doi:10.1080/08964289.2017.1297291.
- Díaz, A., Busto, A. & Caamaño, F. (2018). *Consumo de alcohol, tabaco y cannabis en adolescentes de una población multicultural* (Burea, Lugo). *Adicciones*, 30(4), 264-270. Doi:10.20882/adicciones.915
- Estévez, A., Herrero, D., Sarabia, I. & Jáuregui, P. (2004). *El papel mediador en la regulación emocional entre el juego patológico, uso abusivo de internet y videojuegos y la sintomatología disfuncional en jóvenes y adolescentes*. *Adicciones*, 26(4), 282-290. Doi:10.20882/adicciones.26
- Estévez, A., Urbiola, I., Iruarizaga, I., Onaindia, J. & Jáuregui, P. (2017). *Dependencia emocional y consecuencias psicológicas del abuso de internet y móvil en jóvenes*. *Anales de Psicología*, 33(2), 260-268. Doi:10.6018/analesps.33.2.255111
- Gómez, M.N. & López-Rodríguez, J.A. (2017). *La dependencia emocional: la adicción comportamental en los márgenes de la patología dual*. *Revista de patología Dual*, 4(2), 1-4.
- Meredith, P., Moyle, R. & Kerley, L. ((2020). *Substance use: links with sensory sensitivity, attachment insecurity, and distress in young adults*. *Substance use Misuse*, 22, 1-8. Doi:10.1080/10826084.2020.1766502
- Moreno, M.J., Lillo, R. & Medina, J.A. (2014). *La dependencia emocional: aspectos jurídicos y psiquiátricos*. Córdoba:FEPSM
- Sánchez, P.L., (2013). *Género y drogas, guía informativa*. Alacant: Tábula Comunicación.
- Serra, W., Chatard, A., Tello, N., Harika-Germaineau, G., Noël, X. & Jaafari, N. (2019). *Mummy, daddy, and addiction: implicit insecure attachment is associated with substance use in college students*. *Experimental and Clinical Psychopharmacology*, 27(6), 522-529. Doi:10.1037/pha0000266
- Teixidó-Compañó, E.T., Espelt, A., Sordo, L., Bravo, M.J., Sarasa-Renedo, A., Indave, B.I., Bosque-Prous, M. & Brugal, M.T. (2018). *Differences between men and women in substance use: the role of educational level and employment status*. *Gaceta Sanitaria*, 32(1), 41-47. Doi: 10.1016/j-gaceta.2016.12.017

- Urbiola, I., & Estévez, A. (2015). *Dependencia emocional y esquemas desadaptativos tempranos en el noviazgo de adolescentes y jóvenes*. *Ansiedad y Estrés*, 9(1), 27-41

Aintzat hartu diren azterlan eta txostenak

- **“ESPAD txostena – Alkoholari eta beste droga batzuei buruzko Europako inkesta, 2019”** (European School Survey Project on Alcohol and Other Drugs). Espainiako Gobernuaren Osasun Ministerioaren Drogei buruzko Plan Nazionalaren bidez emandako datu estataletatik abiatuta egin da txosten hau. (www.espad.org)
- **“2020ko txostena – Alkohola, tabakoa eta legez kanpoko drogak Espainian”**. Drogen eta Adikzioen Espainiako Behatokiak egin du, Espainiako Gobernuaren Osasun Ministerioaren Estatu Idazkaritzaren Drogei buruzko Plan Nazionalaren bidez.
- **“Kontsumoei eta mendekotasunezko jokabideei buruzko txostena”**, “Adikzioen 2017-2024ko Estrategia Nazionala” dokumentuari dagokiona; Gobernuaren Ordezkaritzak egin du Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizaterako Ministerioaren Drogei buruzko Plan Nazionalerako, eta Ministro Kontseiluak 2018ko otsailean onartu zuen.
- **“ESTUDES 2018/2019 txostena – Espainian Bigarren Hezkuntzan hartzen diren drogei buruzko inkesta”**. Drogen eta Adikzioen Espainiako Behatokiak egin du, Espainiako Gobernuaren Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizaterako Ministerioaren Drogei buruzko Plan Nazionalerako Estatu Idazkaritzaren bidez.
- **“Euskadiko haurren eta nerabeen errealitatea kopurutan, 2018”** txostena. Edefundazioak egin du Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailerako. 2019ko uztaila.
- **“Drogak eta Eskola IX - 2017”** txostena. Droga-menpekotasunen Deustuko Institutuak egin du.
- **“Conocimiento, hábitos y actitudes frente al alcohol del alumnado de Educación Secundaria en la zona rural alavesa”** txostena. SASOIAk egin du, GOFEn Prebentzio Komunitariorako Foru Erakundeetarako. (2017)
- **“Euskadi eta Drogak –2017”** azterlanerako egindako inkesten emaitzei buruzko datuak. Gizarte Zerbitzuen Superintendentsiak egin du, Fundación Eguía-Careaga Fundazioaren Dokumentazio eta Ikerketa Zentroaren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Adikzioen Zuzendaritzarako. (2018ko iraila). Bost urterik behin egiten da.

- **“Adicciones comportamentales y tecnología: entre la persona adicta y la tecnología adictiva”** azterlanaren datuak. Revista española de drogodependencias-Egilea. López-González, H., Guerrero-Solé, F. eta Estévez, A. (2019).
- **“El consumo de sustancias y su relación con la dependencia emocional, el apego y la regulación emocional en adolescentes”** argitalpena. De Momeñe, J., Estévez, A., Pérez-García, AM, Jiménez, J., Chávez-Vera, MD, Olave, L. eta Iruarizaga, I. (2020).

Horretaz gain, eta, oraintxe bertan, **pandemiaren ondoriozko kalteen intzidentzia zein den jakitea oso garrantzitsua denez, honako txosten hauetan bildutako datu** batzuk ere aintzat hartu ditugu

- **“El impacto de la crisis de la covid-19 en la adolescencia: del riesgo a la emergencia social”** txostena. Ayuda contra la Drogadicción fundazioak egin du. 2020ko maiatza.
- **“Salud Mental y Covid-19 en Infancia y adolescencia: Visión desde la Psicopatología y la salud pública”** txostena. J.L. Pedreira Massa. Rev.Esp. Salud Pública (94. bol., 2020ko urriaren 16koa)
- **“Adolescentes, familias y COVID’19: ¿convivencia o supervivencia?”** azterlana. Amalgama7-k eta Bartzelonako Portal fundazioak egin dute. (2020ko abendua)
- **“COVID’19, substantzia psikoaktiboak kontsumo eta adikzioak Espainian”** txostena. Gobernu Idazkaritzak egin du, Drogei buruzko Plan Nazionalerako, Drogen eta Adikzioen Espainiako Behatokiaren bidez. (2020ko abendua)
- **“Informe para una valoración, reflexión y debate sobre el impacto de la COVID’19 en adolescentes y jóvenes de la zona occidental de Álava”**. Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Arabako landa eremuko Prebentzio Komunitariorako Foru Zerbitzuak egin du. (2021eko urtarrila)

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroa